

# zeruko ARGIA

IDAIZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

## Izkuntza ta etnia Olaetxea jaunaren itzaldiari oar batzuk

Etnia itzak duen zabaltasuna ez da erreza itz gutxitan eta uste gutxitan mugatzea. Ortaz, oraindik saio egin bearra dago, batez ere molde oien barnean gure egoerari buruz. Neronek ere esana det izkuntza ez dala etnia guzita ta, etniatik aparte, gizonaren bizitzarentzat beste gauza asko dirala izkuntza (edozein izkuntza) baiño bearrezkoagoak.

Bearrezkoagoak diran gauza oietan, gaurkoz, ez naiz sartuko. Gaur, izkuntza batek etnia aldetik duan balioareztaz jardungo naiz; ain zuzen ere gure izkuntzak.

El concepto del vasco y de lo vasco gaiari buruz mintzatu omen zan Juan Bautista Olaetxea jaunna "XXIII Fiestas Euskaras"-en sarrean, irailaren 4-ko "La Voz de España" ekarren Jabier de Aranburu'ren artikulua batek dionez.

Olaetxea jaunaren ustez —Aranburu'k dionez—, euskera utzita ere oiturak berdin jarraitzen omen dute; zergaitik, euskera galdu duten erriak ez omen dute euskotar girorik galdu, Gero, ez dakit nola, izkuntza ta etnia korapillatzen dituzte, euskera gabe ere etniak berdintu jarraituko zuela esanaz.

Aranburu jaunak diona orrela baldin bada, oar batzuk argi ta garbi jartzea nai nituzke. Beraz, asteko, esango diot Olaetxea jaunari, jakin dezala etniak bere zabaltasun guzian, bai Euskalerrian eta bai mundu guzian, izkuntza duela ofiarririk nausiena. Ezer ez dijoa,etnari, izkuntza baiño lotuago.

Errazoi au indartzeko aski degu begiratu bat orain berreun urte inguru etnia estudioak asi ziranetik gaur arte, Euskalerriko etnologia estudiantzen ari izan diran arrotz jakitunetatik, eunetik larogetik izkuntzari eman diola balioa, ta izkuntzar buruz egin dirala eunetik larogetik diferentzian, gutxienez, euskal etniaren estudioak. Beraz, orrek, beste gabe, arri jartzen digu, etniaren aldetik, bere balioetarik erdia baiño geiago izkuntzak duela.

Aski izango zaio Olaetxea jaunari ortaz egin diran lanik nagusieneri "RIEV" eta "Eusko Folklore"-ren bilduak diran laneri begiratu bat ematea. Lan oiek ezagutzen dituan nornaik daki gure kultura zaar guzira (gure etnia guzira) urri gelditzen dala izkuntza gabe.

Uste det puntu ori argi dagoala.

Bestaldetik, euskera galduta ere Euskalerriak berdin jarraitze aldetik, Olaetxea jaunak dion teoriari jarraiki, antzerakoak izan bear ziran, euskalgoari buruz, Araba ta Bizkaiko Enkartzioak, Errijoa, Burgos parte bat, Huesca'ko Pirineo aldeak, Biarno (Béarn) eta Kataluniako Ribagorzana goia ta Valle de Aran( zergaitik auek ere lenago euskeraz mintzaten bai ziran, bertako toponimiak eta zenbait deiturak agirian jartzen duenez. Baiña ez da orrelo, Alek ez dute euskotartasunik sentitzen oraingo Euskalerriko geografia politikoa barnean ez daudelako. Baiña, muga ori politiku utsa da, gainerako guzian kideko diralako (oiturretan esan nai det). Oituraz dituzten aldiak, bizkaitar euskaldunetatik napor euskaldunetara daudenak baiño aundiagoak ez bai dira Burgos'tik Huesca'ra eta Huesca'tik Biarnora.

Beste ejenplu bat; jarri alkarrekin gipuzkoar euskaldun bat eta lapurtar euskaldun bat (ta ez da bearrezkoa bertolarren aurean jartzea); bestaldetik euskeraz ez dakien lapurtar bat eta gipuzkoar bat, nai eta batak espanolez jakin eta besteak frantsesez, ia beren artean zer nolako anañtasunak arkitzen dituten.

Oitura ta izakerak alde ortatik egiztatzeko ere, ikusi besterik ez dago euskal kulturari buruz, euskera bide, betidanik alkarren artean izan diran ar-emanak. Gaur bertan ere, euskal kulturari buruz ari geran euskaldunon artean ar-eman estuak ditugu mugaren bi aldietatik. Ta, lasai esan genezake euskeraz ez dakitenen artean ez dala orrelako ar-emanik mugaren bi aldietatik. Etnologo ta euskeltzale, maiz biltzen gera mugazandik edo emendik. Ta gainerakoak, ez dute beren bilkurarik. Jakiña, Miarrizteko kasino kosmopolita orretan jokoan edo izan ezik.

Beraz, nere ustea beste bat da. Ta, gizonon artean, euskera-erdera muga aundiño bat dala esango nuke, gure erri barnean bertan, Bidasoako muga bera baiño. Muga ori, onera datozen etnologo guziak oso ondo bereizten dakite. Orregaitik ez det uste Olaetxea jaunaren iritzi orrek funts aundirik duenik.

Aitortzen det, gaur, gure errian bi komunitade daudela: euskalduna ta erdeliduna. Gizalege aldetik biak dute bizitzeko deretxo berdiña. Gizon bakoitzaren esku dago (obeto esan da, egon bearlitzake) bata uztea eta bestearta; edo obeago dan biekini baliatuaz bizi-

tzia. Baiña, eskubide ofizialkiak berdiñak ez badituzte ere, etnia aldetikjatorrikoak du balio nagusia. Beste izkuntza, beste etnia batekoa baita. Oraingo kultura berrien aldetik erderak du bide geiago, ta bearrezkoa zaigula esango nuke. Baiña, orainagoko kultura berriagoak adierazten digu bilinguismoa obe dala, bata iltzen uztea baiño. Ta guk ezin degu jokatuz Europako erririk aurreratuenak artu duten bidearen kontra. Beraz, zer da Olaetxea jaunaren esan nai? Ez jakintasuna ala jakinaiezatasuna?

Erri bezela, etnia aldetik, euskera ez da guzira, baiña euskaldunok, euskera gabe ez gera ezer. Izkuntza galduta ere erri bat izaten jarraituko genuke, bai noski: oraingo Huesca, Biarno, Errijoa edo Burgos bezelatsu.

Itzaldi orretan esan dituan gainerontzeko gauzetan ez naiz sartzen. Gauzarik geienetan bere errazoiak izango ditu Olaetxea jaunak eta ori ez diot ukatzen. Rhenurtu ditzake euskera gabe ere, baiña ez ordea deltura. Ta, Rhenurtu auzerak arkitzen da aipatu ditudan erri oietan, batez ere Biarno'neta Huesca'n, gutxienez emen bertan beste. Ta ala ere antropologia aldetik orrek ez du naikoa indar arraza aparteko bezela jartzeko Paris'ko Musée de l'Homme'koak oraintxu egin dituzten estudioetan. Ez baita naikoa bereizkuntza, Beraz, auzentzat ere, euskera izan da gure errian arkitu duen gauzarik bereziarena.

Gaiñera, ez det uste euskaldun izateak arrotu bear gaituanik, berak ori orrela esan badu ere. Euskera gabe ere Euskalerriko semeok arrotu bear degula? Erri baten izaeta ez da arrakerian gorabera. Erri guziak dituzte beren gauz on bereziak, era batera edo bestera. Ta, nere ustean, euskaldunok gure izakeraz ez genuke izan bear zertan arrotu askorik.

Unibersalidaderako ez det uste euskerak txikiago egiten gaituanik, balzik Europarago sentitu bear giñake gogoz kontra jarri zaigun sasi-muga bat gorabera. Ez da alperrik euskera European izkuntzarik zarrenetakoa.

Olaetxea jaunari kostako zaio orain arteko etnologo guzien iritzi beara botatzea.

Guretzat, euskaldun izatea, biltzen barnean dago: izan edo ez izan.

JUAN SAN MARTIN

## SOBIETARRAK ETA EUSKALDUNAK

"Nedelja" izeneko errusiar asterokoak, bere 49'gn. zenbakian euskaldunai buruzko artikulua bat argitaratu du. "Baski, otkuda oni?" (Euskaldunak, nundikoak?) titulopean, Aleksandr Kinknadze'k, gure izkuntza, oitura ta izakerarenganako interes eta adiskidetasun-agiria eman die asterokoaren irakurleari.

Idazlea jeorjiarra dalarik, euskaldunen aurpegi ta dantzak ikusi ta euskera entzunez, bere jaioterrian zegoela iruditu omen zitzaion. Berak dionez itz berdin asko arkitu omen ditu euskera ta jeorjieraren artean.

Euskaldunen kemen eta bulartsutasunaz mintzo dalarik, azkeneko gutatean aien sinpatia ez ezik, errespetao ere irabazteko lain izan giñala, idazten du. Espirituz aien anai giñala, irakurri omen zuan aldi artan. Beste zerbaiz geiagoz ere ez ote kintezke izan? galdetzen du jeorjiarrak.

Gero, Akrem Dzafar, izkuntzalariaren itzak aipatzen ditu: "Euskaldunen artean linguistika-expedizio serio bat egiteko ordua etorri dala, iruditzen zait".

"Ekonomiceskaja Geografija Zarubeznich Stran" (Moskva, "Prosvetsenié" 1965) liburuaren egileak euskaldunak kaukasoar familian sartzeko zalantzarik ez omen du izan. Ikasketa-txango onen ondoren, bear bada, idazle orren aurre-ikusmenaz arritu bearrean izango giñakela, uste du Kinknadze'k. "Egiaren" zai geratzen dan bitartean, itz onek jeorjieraz eta euskeraz ots berdiña duala esanaz bukatzen du artikulua.

X. MENDIGUREN

## EUSKALERRIA



Mapa eskun artzeko orduan —arritzekoa da baño— galdera au etorri zait burura: euskaldunen artean zenbatak jakingo al dute gure Erriko probintziak? Eta zenbat kilometro luze-zabalean ditun? Jende pilla bat izango ez dakitenak, Joan diran asteetan Telebisioari egon bazera— argi ikusiko zendun zer-nolako ezjakiña dagon euskaldunen artean. Eta gure Erriko biztanleak zenbat diran jakin nai ba-dugu, zer? Gure gazedia esnatzen ari dala! Oraindik —uste degu— oso gutxi. Kultura bear du gure Erriak.

Udara joan da eta oporraldiak ere bai. Gure aur eta gazteak eskolara joaten asiko dira. Ernaraziko al dute guraso auek beren semeetan kultura ikasteko gogoa? Mugituko al dira ain euskaldun jator bezelakoak beren burua artzen duten gazte oiek, euskal-kulturaren alde zerbaiz prest egiteko? Aztertu beza norberak zer egin zuan igaz eta asi bedi egizko proposamendu ta ekintzak egiten datorren ikastaroako, protuzkoak izan ditezten Euskalerrriari eta euskal-jakintzari.

## BIZKAIA

## MARKINA

—Lengo 25'an bateatu zan, Mari Kareaga ta Blas Ansolaren seme-  
txoa: Xabier Martiñak eta Asensio  
Agirregomezkortak bigarren seme-  
txoa izan dabe. Zorionak!

—Ogeta zaspian eskundu jakuzan  
Parrokian, Paz Aulestoarte ta Jose  
Mari Pagegi.

Baita Maritxu Ansola be, Ga-  
tzagan, Gazteizko Jose Luis Segu-  
rolagaz. Ilonen zortzian, Motrikun'  
ango M.<sup>a</sup> Luisa Arrizabalagaz, Jo-  
se M.<sup>a</sup> Arriaga Arrinda. Zorionak!

—Ogeta bost urte dira gure Don  
Elias eta Don Martin Parroki on-  
tara etorri jakuzala. Ori dala ta,  
erriak omenaldi bat eskini dautsee.  
Ogeta amaikan, pelota tokian, gure  
«Unibersidade» ikuslez beterik  
egoala, pelotari onenatarikoen ar-  
tean, jokoaldi batzuk izan ziran.  
Onena, bikote bat iruren aurka. Ez  
ei da ikusi urtietan ain jokoaldi  
ederrik. Irurak alkar ondo arturik  
bat eginda alde batetik, eta bikote  
gogor eta bizkorra eurai tantorik  
inondik inora sartu ezinik, bestetik.  
Txalo ugari izan zan, pelotarietza-  
ko eta omenaldia artzen ebenen-  
tzako.

Lauan, goizean, Alkarteko Meza  
ederra, bost abadek batera emonda,  
Don Elias buru ebela. Meza ostein,  
erriko neska-mutil dantzariak, beti  
lez, euren trebetasuna erakutxo eus-  
kuen.

Eguerdian, Urberuagako «balnea-  
rioan» degoan jan-toki zabal eta  
ederrean, lagun-arteo bazkaria, gu-  
ra eben guztiak. Ain aundia izan  
arren, lagunez ondo bete zan jan-  
tokia, laguntasun eta alaitasun aun-  
dienean, ardiak artzainaren men-  
pean legez, Don Elias buru zala.  
Ansola anaiak eskini euskuen txis-  
tu joaldia, zoragarria benetan. Mai-  
xuak zari orretan! Eta or amaitu  
zan, gure abade bien omenez Mar-  
kiñako erriak, agintariak aurrean  
ebazala, egin eban jaialdia. Zori onik  
beroenak bio!

—Ondarrun, mutiko lagunekin  
olgetan ebillela, uretara jausi ta ta-  
malez bertan ito zan Migel Mari  
Arrieta, emengo alkatearen llobera.  
Illetak, astelenean izan ziran. Gure  
samin agurra etxeko.

Egun orretan izan ziran, baita  
Jose Zelaya Arrietaren illetak be.  
Goiian bego.

—Illabete ta erdiko atsedean aldia  
igaro ondoren, ilonen bostean asi  
zan 1966-67'ko ikastaroa «Escuela  
Laboral» ean. Aurten, oraingoz, be-  
rreun eta irurogeta lau mutil asi di-  
ra, eurretatik larogeta amabost in-  
guru barruko, bertan jan eta lo egi-  
teko, ta beste berrogei inguru ber-  
tan jateko. Badauke lana orrenbeste  
mutiko ezitzen.

## GADU

## GALDAKANO

## TXANBURU BARRIA

Orain denpora andirik ez tala ida-  
tzi neban esaten, erriko ertxodon  
nagusira txanburu barria datorri-  
gula-ta, baña, orduban esan gendu-  
ban jauna etzan etorri, batzuk esan  
daukubenez, euzkeraz ezakitelako:  
Orregaitik izan bada bidezko  
ikusiten dogu, ze, Galdakano'ko  
euskaldunok apaz euzkaldunak gu-  
ra doguz... ta iñoz baño biarrago  
doguzalakof orretarikua da orain  
bidaldu dauzbena.

Ill'onen lau'garren izan dogu  
eleizkizun eder bat, erriko ertxodon  
edo parrokian, Arrinda'tar Jon-Mi-  
rena txanburu barrijaren aurkez-  
pena edo presentazioa dala ta.  
Eberdiko amabietan ospatu eban  
jaupa, meza On Jon-Mirena txan-  
buru jaunak beste zortzi erriko  
apaz laguntzale daituzala. Txonin-  
za be berak, Arrinda jaunak egin  
eban, ederto egin be, gaztekeraz da  
euzkeraz.

Jayotzez Abadiñotarra dala esan  
daukubez Arrinda jauna, ta erri or-  
takua izan ezketiño, euzkaldun ja-  
torri izango dalakuan gagoz... biar-  
bada orretara izatia gura genduke-  
lako. Ongi etorria izan daitela gu-  
reartera, ta, ongaria izango al'da  
beren lana eleiza ta Euskal-Erri'an  
onerako.

## A. KATOLIKAKUAK

Erri onetako Uzurtza Ekintza  
edo Akzion Katolikako gaztedija  
eztako lotan, euron taldera gazte-  
dija eruatuko lan egokia dabilz egi-  
ten gaztetxuen artian, ze, erakutsi  
ona ondo badago be ezta nauka

noberaganatuteko, zerbait geyago  
biar da, oiek atsegin dabean kirolak  
edo abar eta orixe egindabe gure  
gaztediak; eraldu, gertu ostikoketa  
txapelketak, mendiko ibilketak ta  
abarr.

Lerro auek idatziten gagozian,  
sei kide edo ekipo, amazortzi urte-  
tik berakuak danak, dabilz Elexal-  
de'ko zelayan, da, azkena edo fi-  
nala, «Galdakano» ren zelai naga-  
sian jokatu dabe ill'onen 25'gn.  
Ostikoketatik gañera, mendiko ibil-  
keta neurtu bat jarri dabe, Gangu-  
ren mendigoizale taldiaren babes-  
pian, ill'onen 18'garrenerako, erri  
inguruetako mendirik-mendi, baña,  
amazazpi (17) urtekit berakuantzat.

Ederto baño obeto aurkituten do-  
gu gure uzurtzale gaztiaren lanak,  
ze, txonintzak bakarrik ez tira nau-  
kua gure gaztedija eleiza babespian  
ekusteko, auei gazteai, atsegin da-  
ben zerbait geyago emon biar jake.  
Aurrera mutillak bide orretatik!

## EZKONTZAK

Gure gaztedija adoretu dago, ez-  
tauko bildurrik biziera barrija ar-  
tuteko, ezkontuteko, gizarako ar-  
zuari aurre emonaz. Egunokaz be  
ainbat erriko gazte ezkontu daku,  
ta oien artian ara emen gure adis-  
kide ta euskeltzale batzuk:

Ill'onen, Iralla'n 3'gn. ezkontu  
ziran erriko ertxodonan Uriarte'tar  
Begoñe neskatille argi ta lirafin,  
Uriarte'tar Balendin, Arteta auzote-  
giko mutil zintzuaz.

—Ill'a'n 6'gn. baita erriko ertxod-  
on nagusian, Barrenetxea'tar Jose-  
ba-Mirena eta Irigoien'dar Miren-  
Bitorre mutil-neska zintzuak.

—Baita ill'a'n 8'gn. eskondu zan  
bertoko ertxodonan, Elorriaga eta  
Artete'tar Miren-Elene neskatille  
euskeltzalia, Basanri'ko Karrasko  
eta Arana'tar Joseba mutil askarrak.  
Gure zorian beruak guztioi, ta zo-  
riontsuak izango al'dira biziera ba-  
rrian.

## ERRI'KO JAYAK

Erriko jai nagusiak asita doguz,  
Gurutze Deuna'ren Goralkunde egu-  
na dala-ta, obeto esan da, lerro auek  
argitaldu orduko ia amaituta izan-  
go dira. Egitaraba edo programa  
ikusita, ezin gintzake besterik esan:  
aspaldiko urtiaren legez, eztaukela  
euzko mamiñik, erriko «Andre-Ma-  
ri» taldian dantzak eta andrezkula-  
riak kendu eketiño ezetaiko euzko  
giro bakuak. Amayeran esango do-  
gu zelekuak izan diran.

## BASA-JAUN

## IBARRURI

## MEZA BARRIA

Dagonillaren 28'an, bere erriko  
eleiz nagusian, Aginaga tar Jose  
Luis Aita Pasiotarrak, bere lenen-  
go Mezea emon eban. Aundikiro  
emon be.

Aurrerunetik, jai giroa artu eban  
erriak: kanpai ots eta txapilo poz-  
garri ta alaien artean ainbat autorkun-  
tza damuz eta zintzotasunez,  
eleizan.

Igandean, amaiketarako, alkarteko  
Mezea iragarri egoan: bost Meza-  
dun eta «diakono» (laguntzale)  
baten artean: aita Jose Luis lenda-  
kari zala.

Ordu ori eldu baño len, bazan  
erriarren artean: ametsa, ikusgu-  
rea, ta jakituria: «Pozik egongo da  
gaur Juan Ezkerra...» «Gaurkoa,  
amar milla ogerlekak ez dauko  
egingo...» «Non ete daukie bazka-  
ria?» «Eun lagun ei doaz» «Kanpo-  
ra bialduko ete dabe pralle ori...?»  
zan abestutea!

Alkartasun bero baten bazkaria  
gero, urretxindor abeslariok euren  
doñu gozokaz alaiturik.

Zorionak Aita Jose Luis, zeure  
«Pralleakandik gurasok lagunta-  
sun aundirik ez daukie, abade izan  
balitz be baña...» «Ta olako berro-  
geta amarmilla esakera entzun zan  
ibarruriko eleizalde guztian, ingu-  
ruetako errietatik, jai onetara eto-  
zanañ irribarrezko agur gozo bat  
egiten eutsen artean.

Erri guztiak: «ALKARTU DA-  
NOK» abestuten eban bitartean,  
aundikiro sartu ziran eleizan Meza  
emalleak eta erriagaz otoiitz egin on-  
doren igon ziran altarara. Bat ba-  
tean Deustuko abeslariak asi eban:  
«Erruki Jauna» lau abotsetara; Ain-  
za, Sinisten dogu, Santu, ta Mun-  
duko pekatua» lez Aita Iruarri-  
gak eurak abestuteko egiñeko Meza  
guztiz eder eta barria, eleiz-ba-  
tzarraren irakatsiañ jarrai egiña.  
Ederra benetan Mezea ta ederto  
abestua! Onik mutillak: bai egile  
ta bai abeslariak!

Itzaldian, Aita Martzel'ek itz go-  
zo ta jarroz gauza gogortuak esan

euskuzan bere eretxiak bertsoan  
biribilduaz: «Egia esateko egin al-  
giña edo bestela ebagi miña».

Meza ondoren erri guztiak, utsi-  
tu eban bere biotzeko maitasun  
agurra, eskumunean.

Eleizkizun ondoren zuri batzuk  
artuta gero «Saltsamendi» aretoan,  
Bizkaiko txapelkun dan Deustuko  
abeslari talde zortzikoteak ekinaldi  
batt izan eban gure entzumenen go-  
zagarri: «Festara» ingles, «Pepita»  
erderaz, Illunnabarra ta abar. An  
ames-mallaraño igonik ikusten zai-  
tugulako, ta eskerrik asko zeure  
jaioterriari poztasun osozko egun  
bat eskeñi dautsazulako!

Baña or etzan amaitu jaia. Biara-  
monean «Burdixen» Aita Jose Lu-  
sien jaiotetxeko auzunean, alakar-  
tasunik maitekorrenean, bertso,  
txistu ta kantu ostein, auzune guz-  
tia baturik, apari eder bat egin  
eben: ango ollasko, piper eta Erri-  
jako saldea...!

Ona emen ura dala ta asarre ta  
bananduta egon dan auzunea ar-  
dauak zelau batu dauan. Betor  
«Errijoja» bertara alkartuteko ba  
da.

## ITURRIAGA

## ERMUA

BESTE EUSKALZALE  
BAT IL ZAIGU

Gillermo Bengoetxea (Txindurri)  
zaanan atzetik beste euzkaltzale ja-  
tor bat ere ilzaigu. On Jose Fulfain  
Bakero, Elorri'ko semea baño urte  
askotan Ermuan osagilla izan  
zana: 82 urte zituan. Adiskide genduan,  
eta alkartzen giñanetan Er-  
muko eta Euskalerriko kirolak er-  
biltzen genduan ezpañetan. Oso  
maitia zan Ermuan; eta naigabe  
aundikoa izanda bere eriotza. Go-  
yan Bego don Jose, eta gure atse-  
gabeko agurra bere senideari.

## ERMUKO JAIK

Joan dan illaren lelen go igan-  
dean bukatuzian gure erriko jaiak  
«Zantxagoak»: igande au euskale-  
rriko kirol eta dantza'ra egotzia da  
(dedikatua) eta orregaitik dantza  
txapelketa eta iri-proba'k izan gen-  
duzen; zeorzar da ori ere!

## URTEKO JAIK

Oraingo egunetan a ze utsa ikus-  
ten dan gure erria; erbetzekoak eta  
errikoak ere or zear juna dira; gaur  
esan leike antxiokoak eta aspalditxo  
baten etorreranak gauzezelaz; eta  
egia esateko ze baketsu ikusten  
geran. Enea ere, erbetetik etorria  
danez eta askotxoren lez bere sor-  
lekua maitearik: badua bere Mutri-  
kuko txokora; andik erabiliko degu  
Ondarruan dabilzen Ermutarraren  
berriak.

Agur guztiori eta jai on-on ba-  
tzuk.

## ARANBERRIA

## GIPUZKOA

## LEGAZPI

Bola Leiketa Aundia.  
—LENTZ-Urrun-Ikusmen T. V.  
Etxearen lenengo Garai-Ikurra,  
«Trofeo».

Lasalle-tar Antziñ Ikasleak eratu-  
ta, Agorriaren emezortzi eta ogeita-  
bost'an.  
Bi egun oietako bota aldiak izan-  
go dira, Muru bola tokian illaren  
emezortzian, eta Artzai-Onaren  
Ikastetxeko bola tokian illaren ogei-  
tabost'an, goizetik, amaiketarik or-  
dubatar, eta arrats aldean lauta-  
erdietatik seita-erdietara.  
Izena ematen duanak ogei-ta zaz-  
pi lauerleko ordainduko du.

## SARIK

Illaren emezortzian, oitura dan  
erara egingo da sarien banaketa.  
Illaren ogeita-bost'e an.  
Lenengo saria. —LENTZ— etxe-  
aren Garai-Ikurra, bigarren igandean  
biltzen danaren eun-etik ogeita-  
amar, eta milla lauerleko.

Bigarren saria. — biltzen danaren  
eun-etik ogeita-bost, eta zazpireun-  
da berrogeita-amar lauerleko.  
Irugarren saria. — biltzen dana-  
ren eun-etik, eta bost-eun lauerleko.  
Laugarren saria. — biltzen dana-  
ren eun-etik amabost, eta iru-reun  
lauerleko.

Bostgarren saria. — biltzen dana-  
ren eun-etik amar lauerleko.  
Egun onetarako, bi igandetako  
bota aldiak zenbatuko dira.

Ara emen Legazpi'ko bola zale-  
ok zuen gogoko dezuten bola saio  
ederrak egiteko aukera, eutsi sari

bikain oieri errian, eta batez ere,  
gure erriar gazte pizkor AGIRRE-  
ZABAL onek Urretxun daukan  
—LENTZ— Urrun-Ikusmen etxea  
gogoan artu. Badakizute erriko bo-  
la-zaleoi biotz zabalez eskeñi dizu-  
ten saria garantzi aundikoa dala,  
eta berak egiten dituan Urrun-ikus-  
men, Irrati, eta gañerako tresnak ez  
dutela parrerik mundu zabalean.

Nun naiko ikusmen garantzi-  
suri argi eta garbi ikusi nai badezu-  
te —LENTZ— dezute onetan one-  
na, deitu gazte oni eta une berean  
dezute zuen etxean tresna ori jar-  
ria, goxo-tasun aundienarekin.

## AN-ZAN

## AZPEITI

## LAGUN-ONA'KO BERRIAK

Joan zan igandean, Lagun Onak  
bere lenengo jokaldia Deba'n izan  
zun. 8-0 irabazi zuten azpeitiarrak  
Amaiak-Bat'en aurka.

Jokalaririk trebeanak Jose Luis  
(irugol), Garmendia (bi), Kanpillo  
(bi) ta Gurrutxaga (bat), izan zi-  
ran.

Asierako eztago gaizki, e? Ba-  
ñan ekin bakarrik ez, jarrai!  
Ia bada Lagun, gogor aurrera!

## ZEZENAK

Il onen 18'an zezenak ikusi bea-  
rreen gera. Orain illabete batzuk  
«OPORTUNIDAD» eske izan geni-  
tun «Serrania» ta «Faraón», orain  
esker-ona eskeintzera omen datoz-  
kigu...

## ARANTZAZU

Baita ere datorren igandean izan-  
go da, Neskaten Arantzazu'ra  
igoera.

Mutillak baño obetoago eran-  
tzungo ote dute neskek?

Aiek «verbena» zuten aitzaki,  
auek «novillada»?

Ezta bederatzirenera txintxo-  
txintxo joatea nauka. Eragozpenak  
menderatzen ikasi bear degu!

Neskak! zuen esku Azpeiti'n zen-  
bateraño «RESPONSABILIDAD»  
dagon agertzea.

## ERRI TXUKUNKETA

Txakurrak, bakarrik ibiltzerik ez.  
Erra bustiak kale aldera ixigitz-  
erik ez. Zakar-kajak, bederatzikiak ba-  
ño lenago ateratzerik ez, eta... on-  
do tapauta bear. Azoka-plazan ar-  
rasto batzuk egin dituzte ta, base-  
ritarrak salgaiak oienbarruan eduki  
bear dituzte.

Bai, bai, bai, ori guztia oso ondo  
dago. Bañan dana bestek egin bea-  
rrekoa...

Azoka-plaza orretan, itukiñai ere  
«arrastoak» jartzea komeni daba.  
Oiek joan ditezela bear duten toki-  
ra, edo letxuba ta beste barazkiak  
preskatze ote?

Bideak. Ezin esan Errebaletik  
Arana bitartekoa eziten ari dan al-  
daketa. Bide zabaltze, orma ta bide  
ertz dotorea. ta. badijoaz aurrera.  
Bañan oraindik badira txilipurdizka  
dabilzanak. Gaur, goizeko 6 1/2'tan  
ikusit degu azkena. Bizikletan zijoan  
erri zaitzalle bat...

## JOARISTI'TAR IÑAKI

Lengo batean, azkoitiar jator  
onek bere jai-erriatik zortzirela, ez-  
bear bat izan zuan. Donosti'ra era-  
man zuten oso gaizki.

Orain jakin deguzen askoz obe-  
tuago da, eta ezin ukatuberri onek  
asko poztu gaituala.

Gure onginia Iñaki ta bere  
emazte Azpiazu'tar Itziar'i.

## OLATZ

Il onen 10'ean asten da gure  
Eleiz Nagusian, Olatz'ko Amaren  
bederatzirenera.

Naiz eta bere eguna Abenduan  
izan, orduan bere Olatz'ko Eleiza-  
txoan ospatu oi dalako, orain erriak  
illaren 18'an ospatuko du.

Eleizkizun eta Jai-aldi bereziak  
izango ditugu bada gure Zaindaria-  
ren omenez il onen irugarren igan-  
dean.

## AZPEITI ERRI DOTOREA

Zenbaitek ori irakurri ta parre-  
gingo du, bañan ez gera txantxe-  
tan ari.

Eskusta degu Izarraitz eta Araun-  
tzen basebean eta Urola ibaiaren  
ertzean dagon zelai zoragarri bat.

Garai batean, an izan oigian,  
San Pedro egunez, doñu-batzaren  
ondoren alai asko joanda. Orain,  
egun orretan Zuma dala, beste er-  
rin-bat dala, Eskustarekin aaztu  
egin gera. Erritarrak alde batera  
utzi deguna, kanpotarrak, atzerrita-  
rrak aprobetxatu dute. Asko ta as-  
ko dira bertan, dalako «tienda-cam-  
paña» oietakoekin gelditzen dira-

nak. Mota guztietakoak gañera:  
aberats eta beartsuak, aundizki ta  
ijitoak...

Bai, azpeitiarrok, aitortu dezagan,  
Eskusta gure zati bat da. An, txoko  
polit artan besarkatzen dira gure bi  
mendi Izarraitz eta Arauntz. Dono-  
sti'ra bidea ta Eskusta zelaia Izar-  
raitz aldetik. Urola ibaia ta burni  
bidea bestetik.

Ain ederra izan eta, ez ote degu  
errezegei aaztu?

Beste gauza bat ere badu Azpei-  
tik oso onuragarria «Amu'ko on-  
dartz». Ez, irakurle, ez, Azpeiti  
eztago itxas-ertzean bañan azpei-  
tiarrok badegu nun gure gorputzari  
bustialdi ederrak eman. Ez ditugu  
alperrik Ibai-Eder eta Amu'ko ur  
garbiak.

Gu, txikiak giñala, an joan oi gi-  
ñan onak blisti-blasta bustitzera,  
gero... San Pedro gañera ur-arrat-  
pazera.

Nork esan, ain denbora gutxian,  
an «ondartza» bat sortuko zanik?

Udara onetan asko joan dira berta-  
ra «bañatzera» ta igerira. Amak  
umetxoak eskutik artuta, gazteak  
galtzarbean busti-jantziak dituztela,  
t. a.

Bai, benetan Azpeiti erri dotorea  
da...

## EUSKAL-ZALEAK

## ZUMAIA

EUSKAL-JAIA ALA  
KARNABALA?

Zenbait erriar ikusi izan ditu-  
gun Euskal-jaiak ikusi ondoren, ne-  
gargarria zan Zumaia'ko enparan-  
tzara begiratzea «Fiesta Vasca» ren  
izenarekin egiten dan jaialdia ospa-  
tzen ari zan arratsaldean, joandan  
dagonillaren 25'ean. Naiz eta pro-  
grametan euskal jantziakin azaltze-  
ko eskatu 15 bat mutil gaztek osat-  
utako talde bat urdinez eta beste  
10 edo 12 neska besterik etzuden  
bear bezela jantzia. Beste guztiak  
umeak edo Euskal-jai ta karnabala  
berdin dirala pentsatzen duten kan-  
potar kazte batzuek.

Au irakurtzean norbaitek pentsa  
lezake Zumaia'ko gaztediak zer egi-  
ten duan jaialdi ori bear dan jator-  
tasunarekin ez antolatze ote ospa-  
tuzeko. Baña or dago kokkal Erri-  
ko gazteak zerbait lagundu naian  
azaldu diranean igaz bezela, edo  
aurtengo jorriailean Aita Mari'ren  
omenez Euskal-Jai bat prestatu nai  
izan dutenean, bere laguntza ez da  
onartu eta milla eragozpen arkitu  
dira bere asmoak galaratzeko. Badi-  
rudi beste tokietan Euskal-Jaiak be-  
re izenak dion bezela euskaldunen  
jaiak diran bezela, Zumaia'koa zer-  
tan denbora pasa ez dakiten zenbait  
udara-zale, txapel bat edo pañulu  
bat jantzi eta pare bat ordu brin-  
koka igarotzeko dala. Orregaitik  
erriko gazte geienak, oso iritzi on-  
akin gure ustez, ez tuzten zer jakin  
nai izan festa onekin. Gurasoak, ba-  
tzuek beintzat, errexago aztu ziran  
len gertatuakin eta naiago izan zu-  
ten bere aurrak euskal jantziarekin  
nolako politik zeuden jendeari era-  
kutsi.

Gure aldetik urten degu orren-  
beste atzerritar errian dagon garai  
batean folklorekerik kaxkarrenera  
irixten ez dan «gauz» orrekin gure  
euskal izena naztuzteko eskubide-  
rik ez dagola. Orregaitik eskatzen  
deguz, jaialdi au egiten jarraitu nai  
bada gutxienez izan dedilla geure  
nortasunaren eta folkloreaken ager-  
pen bat, erri guztia eta batez ere  
gaztediaren laguntzarekin tajutua,  
bada oraingoan jarriztekoan milla  
bider obego da ezer ez egitea.

## OLARRU

(8'garren orrialdean jarraitzen du)

## Zeruko Argia

## Zuzendaria:

JOSÉ IGNAZIO GABILONDO  
PUJOL

Naparro-Kantauri ta Aragoi-  
ko Kaputxinoak argitaratua.  
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n  
Oquendo, 22; tel. 26666

## ARPIDE-SARIA:

Urtekoa . . . 140 pta.  
Erbestean . . . 210 pta.  
Aidez artu nai bada, galdetu.

## Errietako berri emailleak

ZERUKO ARGIA asi zanetik, oso pozik artu izan ditugu errietako gaztedi ta berri-emalleak bialdu izan dizkiguten eskutitzak. Erri bakoitzak bere auzi ta erabaki bearrak izan oi ditu. Alderdi bakoitzak, baillera bakoitzak, bere aurrerapideak eta okerrak agirian jarri ditzazke, aurrerapenak indartu ta okerrak zuzentzeko.

Gure aldizkariak pozik artuko ditu alde guzietako agerp-nak eta asmo berrien aizeak. Jokabide au nola aurrera eramán ditekén, ederki asko erakutsi digute GEREDIAGA'ko lagunak. Bilbo'ko egunkari batek egoki jartzen digu Durango'n egin dana bide ontan.

Aurrez, Bizkaí'ko Gobernadore jaunak Aiantamentu guziei beren premián eta zuzendu bearrén zerrenda eskatu zien. Durango'ko Aiantamentuak, "Gerediaga" tarren Elkarteak Durango inguruko gauzetan artu duan sarrera ba-daki ta besterik gabe Elkarte orri eskatu dio, adierazi dezazkiola alde aretan diran premiak eta zuzendu bearrak.

"Gerediaga" tarrak bereala erantzun dio Erriko Etxeari bere iritziz zer egin bear ditekén aurrena. Ala dio, eskola premi-aundia dagola bailleran. Aur atzeratuen Ikastolak ere bear lirakela. Onela dijoaz beste egin bearrak aitatzen banaka-banaka.

Durango'n egin dana, zergatik ez da erri guzietan egiten? Erriko jendeak etxeko berri ba-daki jakin, Askotan berrieta utsetan gaitzen du garaia. Lagunartean esaten diranak, zergatik ez Erriko Etxetara eraman? Errezena, agintarien bizkar erru guzia botatzea izaten da.

Gure iritzi ta maixiaketak, taberna zulotan gelditzen ba-dira, ezer gutxi iritxiko dute, Obe izango degu zerbait egin dezakénaren aurrean itzégitea.

Ortik degu, beraz, bide jatorra ta eragillea. Ta inork egitekotan, gazteak lirake egokienak, premi oiek aitatzeko ta errietako okerrak zuzenbidean sartzeko eragillerik erosenak. Gure aldizkari au ere, orren zai dago. Zabalik ditugu gure aldizkariaren orriak guzien deiak eta esanak zabaltzeko.

## ZERUKO ARGIA'k badu sail bat errietako gaiak erabiltzeko

Inoiz tarteka ere eman izan degu ZERUKO ARGIA'n sail bat izenburu onekin: "Zenbat buru, ainbat aburu". Sail esan argitaduko genituzke onelako berriak, Berri biziak bear ditugu; errietan guzien aotan dabilzkan eskaerak arrotu nai ditugu.

Gaztediak bere aldetik, nolabait bere indarrak erabiltzeko gogoá oi du. Alperkerietan eta nabarmenkerietan beren indarrak urtu baiño askoz ohea izango dute errién aurrerapenetan beren buru ta besoak nekatzea. Itz gutxitan, zeatz emandako berriak eragin aundia izan dezakete errietan.

Euskalerriko kondaira txikia, onelako idazleak eman dezakete. Kondaira txiki oiek bilduta, Kondaira Aundia osatzen dute. Agintariak, osterá, mendekoen gogoak eta eskariak ezagutuaz, biderik egokienak artu ditzakete. Goiko ta bekoen artean artu-eman estuak mesede aundia egin dezake gure artean.

Berri-emalle txintxoá, sarri bere lanaren iritzi pobrean bizi da. Eatu uste ezer aundirik egiten ari danik, Baiña koxka txiki askok, eratzén dute irudia. Ta irudigille salatuak, makina bat ikutu txiki egin bear izaten dizkio bere irudi landuei. Aien bidez, azkenerako erti lanik ederrenak burutzen ditu. Beste ainbeste gerta díteke errietako berri-emalle apalen lanarekin. Ustegabeán lan aundia egin dezakete.

## Langillearen zartzaró

"UXOLA"

Langilleen oporraldiaz, langille-nagusi arteko batzar, ixilkako eske do igesketaren bitartez zerbait irixten ari gera langilleok gure lan-sari obetze orretan.

Bañan opor oieri eta bere ondorengo lege-berri, konbenio kolekti-boak edo edozein izeneko paperei begiratzén ba-diogu, nabarmenki gauz bat nabaitzen degu: gaurkotásun eskeari gaurkotásunéz betetako soluzioá ematen zaiola. Izen bat eman bear eta gaurkotásun izen ematen diogu. Eta izan ere alaxén da eta fenomenoak ez gaitu arritu bear.

Lantegietan langilleen buru egiten dutenak gazteak dituzú. Berak dira opor eta mugimentuen biotzak. Ez dago gaizki. Bañan gazte izan, osasuntsu bizi, naiko jolastuaz ibili gazteak ez díe begiratzén etorkizunari, pensatzén ere ez da jartzen bere zartzaróá zaartu bear duenik ez bai-zaio iduritzén.

Bañan zartzaróá ortxén dago urte batzuen ostean, ari'arian bizitzak dakorkion txoko ximur batean gordeta.

Txalogarria da bizitz obeago bategatik burukatzea, gaur-egun ondo edo al dan ondoen bizitzeko lanetan jarduntzea. Txalogarriak onelakoxe eskearekin lan tokian mugitzeak, eta ez gaude au naxiatzeko, ez. Bañan gazteok dabilzaten borondate on orrekin guk ere bat egitiik, gaurkotásunéz geitxo suntu-turik dabilzateala esango nieke, etorkizunatzaz aaztuta dabilzateala gogoraarazi nai nieke.

Gaur zaarrak arkitzén diran problemarekin arkituko gera, bai ziur ain zarrak ez geranok biar, eta etzi edo etzi-amu zuek, gazteok. Zaarra eulia armiarma sareán bezelaxe arkitzén da gaur, igesegin eziñik jubilazioaren legepekik. Armiarma sareán loturik eta seguridade sozialaren aurrean, auxe askatasuna eman leziáokén leioa bezelaxe da arrapa eziñekoa, etsipepenezkoa.

Bere odola eta izardia bere izatea eta adimena, bere gaztetásuna eta balio-izateak galdu dituanen

eta atseden zerbait artu nai duanean auxe gertatzén zaio, eta esan dezadan zenbakiz eta batz-beste-ko azalpenean.

Lenengo maillako ofizial bat zera. Gaur-gaur, ortxe-ortxe 240 laurleko irabazten dituzú. Dituzun urteaz 80 euni tokatzén zaizu eta zerbait izango dezula iduriturik zaude. Paperak egiten aaztén zera-denian begiak zabaltzén dizkitzute. Zure jubilazio-saria 80 laurleko díra, beraz zure artu bearrak 64 laurleko egunean díra. Eta jakiten dezunian animoa lurrera erortzén zaizu, biotza dardaraz zatitzén zaizu. Ainbat urteetan lan eginda! Eta, nola bizi?

Bañan zu bakarrik ez zaitugu itun izango. Baita ere, esatebaterako, Peoiak eta ingenieroak; ark proporzio bereán 48 laurleko izango baiditu eta onek, karrera eta guzi, illean 4.480 laurleko. Esan leike, uts aundirik egin gabe, egiz irabazten duanaren laurden bat bakarra jasoko duela.

Onek dakar zaarren ezin biziá. Eta ez gera sartzén desbaloriza-

zioak dakarzikin problemetan. Era ontan, jubilatua, geienetan gerta oi dan bezela seme onak baldin ba-ditu beroién babesean bearko du. Eta jubilatua, oraindik gizon, bere nortasuna eta jabetasuna galzén dituela iduritzén zaio bizitzeko aína díru jasotzén ez duelako.

Beraz, izpiritu eta ekonomi problemak berekin dítu zartzaróan. Eta auxe izan bear luteke gogoan sozial gauzetan sarturik dabilzkanak. Pixka bat begiratu bear lioteké etorkizunari. Gaur ondo-antza bizi eta biar edo etzi sendikoen faborez bizitzéak ez datorrela ondo gizon-gizon nabaitzén danarekin. Txit ongi baitago gaur ondo bizitzéa, bañan zartzaróak urteetako lanaren fruitua oporstuago jaso bear duela ez gaitzén aaztu. Gu-txienez bere gaurko egizko saria izan dedilla jubilazioaren sari-oiñarri. Ez litzake geiegikeria au lortzea.

Bai, langilleen eskarietan toki be-rezi bat bear luke zaarren etorkizunak. Ortzen-ortzen baitago, zartzaróá, guzi-guzion zai.

## Folklorekeria euskeran

Ara emen TXISTULARI aldizkari argitaralduteko artu dogun idazkia:

"TXISTULARI'ko Zuzendari jaun-":

Euskalduna naz eta irakurri dot ZERUKO ARGIA'n, folkloreari buruz idatziko dot, euskeraz ez-takienak be ulertúteko moduan, guztiak lagundu dayen nik proposatuko dodan kanpañan.

ZERUKO ARGIA'tik, euskal idazle batzuk, gu folkloriaren kontra egin dábe, esanaz mamibako, sustraibako folklorea egiten dogula, au da, folklorekeria. Esan daukue, esate baterako, ta au Santamaria'k esan dau, motza dala, dantz talde batek eritxu baten bere jaialdia eskeñi ta gero, dantzariak erri zear sakabanatuten diranean, erderaz itz egiten joatea. Baserritarrak galdetuten dábe: "Oneik díra guri irakasten etorri yakunak?".

Ondo ikusten dot kritika au. Ba-ña badago beste kritika andiágo bat egin leikena, ta ZERUKO ARGIA'n orañarte egin eztana.

Zer da euskal idazleen artean er-dera egitea? Ezta ezin sinistúteko gauza? Ez guztiak. Euren ar-ñan geyenak pekatu ori eztábe egiten. Baña batzuk dagoz olan egiten dábenak eta eskandalua sortzén dábe.

Nik gura neuke nire irakurleak, eta batez be folkloriariak, eskandalu onen kontra egitea. Euskaldunak, euren artean erderaz egiten dábadé, zelako indarra eukiko dábe folkloriariak ikasi dayen aginduteko. Zertarako euskera ikasi, gero erderaz egiteko, euren moduan?

Asko eskeñiko dautzuet idazki au argitaraldia bada. Etsot gura inór mindu. Gura dodana da euskera zabaldu ta erabilia izan dayala. Zurca,

Iñaki GOMEZ OCERIN"

Arri batzuk jaurti ziran folkloriariak. Batzuk, arrazoiz beterik. Beste batzuk, ez ainbeste.

Orain, folkloriari batek bere eskua jaso dau, artu arria, ta euskaldunen tellatura bota. Arrazoia dauka? Zuk erantzun.

Xabier GEREÑO

## Egunkari antzekoa

BASAÑEZ

Astelena 11

GAURKO «HUMORISTA ZELEBREAK»

An eta emen, Euskalerriko irratietan oso ezagunak díra humorista ospetsu oek. Nik len barre egiten neban, orain... negarrez. Eta ni lez, ainbeste erriar gazte. Ona emen adibide bat: Igez, erri baten gaztedia prest egon zan "uts" egiteko onelako "humorista zelebre" bateri. Zergatit? Ba, ixildu bear díralako betiko. Ixiltzén badira, danentzat oba.

Asteartea 12

GU BAI BENETAKO KANPOKOAK

¡Orrek kanpokoak...! eta lepoa emoten dautsogu gure euskal egin-bearrari. ¡Orrek kanpokoak...! eta euri leporatzen dautsegu gaurko euskeraren egoera, gu jesarrita egonaz. Orrek kanpokoak! Orrek kanpokoak! Gu bai, benetako kanpokoak, Euskalerrian bizianen ta euskaldunak izan arren. Gu euskaldunok, gu Europako erri zarrena, gu bai benetako kanpokoak euskal jakintzarako.

Eguaztena 13

JOK, «ERRI-GAZTEDIA» TA EUSKAL GAZTEDIA

Euskal gazte naz; enaz baserritarra, erritarra baño eta JOK enau betetzén, "Erri-Gaztedia" k, osterá bai.

Uste dot, "Erri-Gaztediak" k, JOK'en ondoan, ari-arian jo dabela, euskalerritu egin dala, erriko arazoak gogoan geiágo artzén dabezela. Nik ez dot egingo orain asterketa bat ekingozaleen biziatzaz; ez yat ardura, baña bai argi ta garbi esan JOK'ek (nire eritxiz) JOK taldeen lez, ez dau gogoan euki, Euskalerriko arazo aundiéna, beste problema batzuen oiñarria: JAKINTZA. Uste dot geienetan, ekonomi artu-emonakandik sortu díran arazoak bakarrik gogoan artun dabezela, eta euskal langilleen arazo aundiéna apur bat baztertuta geratu dala. Amaitzeko, itaunketa bat irakurle: M. Kard-jin enkuéstak ERDERAZ atarako ebazan euskal langilleentzat? EZ.

Eguena 14

KATALAN, GASTELERAZ EZ DAKIENENTZAT

Lengo egunean lagun batek esan eustan: "Katalandar orrek beti dabilz euren katalandar izkuntzagaz aurrera eta atzera, gasteleraz ederto dakie eta katalaneraz gura dábe eleizkizunak" (Kampokoa zan nire laguna). Txarrena da Euskalerrí-barruan batek baño geiágo bardin uste dabela: euskera, gasteleraz ez dakienentzat dala. Batzuetan egoten naz pentsetan ia astoak baño zentzun geiágo daukagun ala ez.

Barikua 15

GIZARTE OSOA NORBERAREN AURKA

Benetan, gogorra, gizarte osoa norberaren aurka sentitzea. Nik be len uste neban erreza zala: onegaz, idealismo apur bategaz eta besteagaz... baña, una batzuetan bakar-bakarrik sentitzén zaranean... txapelketa bat egiteko eragozpenak baño ezdozuenean aurkitzén... gauz bat esan eta iru erara aitu... agintarien agotik ainbeste berba promes beterik entzunda, eta eskua luzatuaz marmolezko otsa orporáño sartzén yatzu-nean... e. ab. Benetan, gogorra, gizarte osoa norberaren aurka sentitzea.

Larumbata 16

«OSTIAN BIZI ZARA» ASARRATZEN NAU

Gizona, gizona izan bear da. Gu gazteok, gu gaurko gazteok, alderdi on eta txar asko daukaguz baña gazteak gura dogu izan, eta lenen-lenengo zintzoak. Ez, ezin dot abestu "Ostian bizi zara" erderasko eleizkizun baten; nire izate osoa larri ipintén da; zer egingo dogu ba. Bakotxaren izate-arloa izango da baña jakin egizu irakurle, Gazte euskaldun batek une batzuetan ez dabela abestuzén pozik "Ostian bizi zara". Zuri be bardin jasotén bayatzu, zer edo zer okertuta dago.



ONGARRI  
PENTSVAK

Ardura aundiz zabaldu degu aurrengo pentzu pilla eta nunaitik entzun ditugu txalo ta zorion milla. Eskerrikasko baserritarrak, ez guaz besteren billa: ONGARRI gaur ta beti zuentzat ongarrí izan dedilla...

Bere lenengo irteeran denok ikusi dezute trebe eta orrela jarraitu nai du gaur ondo ta biar obe. Baserritarrok: egin zerate iturri on baten jabe, gero ta geyo ematen du, ta eskatu bildurrik gabe...

APATAMONASTERIO - ATXONDO - BIZKAIA

SARB EN ARDURAPEAN

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN-EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Donosti'tik egunero:

Bartzelona, Zaragoza, Valentzi, Madrid, Oviedo, Gijon, Iruña, eta Bilbo'ra.

Asteán iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta vigo,'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14. - DONOSTIA.

Tefnoak: 25.457 eta 26.987

# Diruketa eta banaketa

Itzak alkar aditzeko egiñak dira. Gaurko lan ontan, diruketa, erderazko "economía" adierazteko erabiliko degu; ta banaketa, erderazko "segregación" adierazteko. Beraz asi gaitzen bi gertari oiekin sortzen zaigun auzia agertzen.

Estados Unidos'etan, Rhodesia'n, Ego aldeko Aprika'n eta beste lurralde batzuetan, berriro erreminduta dauzkagu beltzak, jende zuriak aiekin darabilten politika banatzaileagatik. Bidegabekeri azpian beren burua ikusi ta beltz jendea etsipenaren mendean arkitzen da. Jende zuria, ostera, lurralde oietan kristau legea ausita bizi da azal beltza dutenak beren eskubideetan oso atzera eutsi nairik.

Egoera onek ekarri duan giro asarrea gozatu nairik, eliz Artzaiak an eta emen itzegin dute, kristau erakutsia gai ontan garbi jarri nairik. Monseñor Huxley, Durban'go artxapetikua izan da itzegin dute netako bat. Onen esanak arrada aundia eragin dute baztarretan. Onela esan digu berak:

"Kristau eta oitura onen aldetik begiratuta, errialde baten barruan ere, bertako arraza desberdiñak beren aurrerapenean banatuta eraman ditezke bakoitza bere aldetik. Baiña jokabide au, ustel agertu da Ego aldeko Aprika'n. Ta ori ez da izan jokabide orren etsaien lanagatik; ezta kanpotik sartu dan beste aizeren batagatik ere".

"Ori, diruketagatik, ekonomi aldetik etorri da. Zuriak ez diranak, euneko larogei, zuriekin lan egitea beartuta arkitzen dira. Amazazpi milloi ditugu beltzak, (auetatik bi milloi ta berreun milla, katolikok dira). Beltz auek alegiñez zuriengandik banatzen saiatu dira, baiña geroago ta eziñago izan da banatzaileen lana. Aien alegiñak geroago ta batuago jarri ditu beltz eta zuriak alkarrekin. Banaketa izenez aspikerizko jokaera bat estali nai izan da. Orrekin, beltzak betiko zurien mende gorrian euki nai dituzte. Orra egi garbia".

Martin Lutero King'ek ere deardarka zion lengo batean Exikago'ko errian: "Beltzari bere itzaropena biurto bear zaio. Beltza etsipenak jotako gizona baita".

Eta alperrik da arazo au lurperatu naia. Txingarrak estalita daudenean, aizerik txikiñak berriro piztu dezake sua; ta onela arkitzen dira lurralde oiek, uskeri baten eragiñez noiz-nai berriro burruka biziz odoloduta arkitzeko zorian.

Beltzen arrazoizko jakiera ta asarrea, gozatu eziñekoak dira, nola ta zuzentasunez eta onberatasunez sendatzen ez diran. Zurien burugabekeri "banaketa" jokabideak, lur oietako Gobernuak eta erriak kinka gogorrean jartzen ditu, edozein egun eta ordutan gogorkeriak eta istillu gorriak sorrazteko arriskuan.

Ala gertatu da Ipar Ameriketako alderdi batzuetan. Eta bitartean itxuragabekeri bat dago agiri arazo auetan. Beltzak eskubideetan aparte euki nai dituzte; ortan zurien azpian betiko eutsi nai dietela; eta bide batez, eginbearretan, beltz oiek zurien pare euki nai dituzte. Beraz, beren lurrean eta ikurrin baten azpian zuriak eta beltzak alkarrengandik banatuak gorde nai dituzte; baiña gerratera joan bear danean (orain Vietnam'go gudara bezela), beltzak zurien pare joan bear dute, bizia galtzera. Eta okerrera dana, beltzak beren bizia arriskuan jarri bearra dute, zuriak beren lurrean sortzen dioten bidegabekeri jokabidea babesteko.

Nork onartu dezake bizitzeko eskubide berdiña ez dutenak, iltzeo bakarrik berdintzea alkarrekin? Eta zenbat eta geiago alegintzen diran, "banaketa" oni eusten, aibat eta okerrago izango da gizarterako.

Kristautasuna ta gizontasuna jokaera onen kontra garrañika ari dira. Gaurko giza-giroa ta kondaira legeak ere, "banaketa" orren aurka ditugu nabarmen. Giza-emakume batzuek ostikopean euki nai izatea, beti da gorrotagarri, baiña ori azalaren koloreagatik bakarrik egin nai izatea, are ta geiago da kondenagarri.

Ezin ditzakegu aibeste gizon eta emakume etsipenaren leizean amildu. Ezta ere, gizadiaren kondaira aurrera eraman bearrean, atzeraka erakarri. Orain irureun urteko bizi-legeak berriro piztu naia, burugabekeri okerrera litzake. Ez gaude orain gizona sal-erosi zitekean denbora aietara itzultzeko.

Ederki adierazi du Monseñor Huxley'k: "Erokeria litzake orain irureun urteko jokabidera berriro itzultzea. Ez al-gaude erlijio-gaietan gogorkeriaren kontra? Ez al-gaude emezortzigarren gizaldiko "esklabuen" kontra? Ez al-degu txartzat eman emeretzigarren gizaldiko jauntxokeria? Utzi dezaiegun, ba, gure aurretikoei beren girotan. Gu geron denborakoak izan gaitzen. Al-datzeko ureetan gaude.

## Ez Merkenak,

## Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gaiñera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

# FANDERIA

## ERREENTERI

# ELIZA

## Donosti'ko Gotzai jauna ta indarkeria

Gure arteko gertaerak aldizkarietan lekua artzen digute. Azkenengo gure Gotzaiari dagokiona irakurtzen degu «VIDA NUEVA» aldizkarian. Ezaguna da gure gazteak Segura'n izan zuten eragozpena, Euskal-jaia ospatzeko. («Mundo Social»etik artutako berriak).

Jaia azkenengo orduan debekatu egin zien agintariak. Ala ere, mendiz eta abar, gazte asko errian sartu ziran eta bertako kaletan kantari aritu zitzaizkigun. Gau aldera, guardizibillen etxe aurrean bonba bat lertu zala esan ziguten. Ori bide zala, gazte batzuek lotu ta indarka ta joka erabili zituzten agintarien zaitzalleak.

Gazteak asarre bizian gure Gotzaiari galdera egin zioten, eskatuaz, guardizibillen jokaera ori bidezkoa al-zan esateko; ta ala ezpazan, indarkeri orri beste indarkeriz erantzun ote-zekioken.

Gure Artzaiak onela erantzun zien gazteei:

"Gazte katoliko maiteok: Zuen egoeraren berri alde batetik eta bestetik jaso ondoren, Segura'ko gertaerak dirala-ta, Eliz Barrutiko Artzai naizen aldetik itz bidetan esan bear ditzuet, Elizaren erakutsia onelakoetan zer dan".

"Eliza Katolikok, indarkeria gaiztosten, kondenatzen du, bide ori artzen duenak artzen duala. Indarkeriak indarkeria sortzen du eta Kristo'ren erakutsia maitasunean, alkarrekiko begirunean eta gizonaren izatearen gaitasunean oiñarritua dago".

"Guk okertzat jotzen ditugu oraingo ontan erabili diran indar-bideak, gazteei aitor-arazteko, ta askoz okerrago iruditzen zaizkigu orrelako jokaerak, errurik izan ote-duten ere, jakin aurretik egin ba-dira; gertaerak eta aien sortzailleak nola izan diran jakiteko neurriak artu baiño lenago artu ba-dira zakarkeri oiek".

"Bestaldetik ere, uste degu indarkeria ezin ditekela ontzat eman beste indarkeriari erantzuteko. Elizaren izenean, beraz, une auetan barruko baretasuna ta zuen jokabidean bengazio ta erantzun asmo guzien ukapena eskatzen dizuegu. Zuen espiritu-giroari ta kristau zentzu ta umatuaren izenean ori eskatzen dizuegu".

"Agintarien aurrean nere agiritza eman det, Eliz Barrutiko Artzai legez. Baiña era berean zuei baretasun eta maitasun ori eskatzen dizuet. Oiek bereizten bai-ditu kristau benetakoak eta benetakoak ez-tiranak".

"Donostia, 1966'go Garagarrillaren 18'garrenean. Lorentzo, Donosti'ko Gotzai".

Gure Artzaiaren eskutitz onen ondoren, «Mundo Social»etik artuta Segura'n gertatuak dakarzi. Pozgarri da guretzat, gure arteko gertaera auek garbi adieraziak ikustea Euskalerritik kanpora. Ordua zan onelako indarkeriak gure artetik uxatzeko, ta askoz geiago ontzat eman ezin ditezken neurri auek

agintarien zaitzailleak sortzen ba-dituzte.

Gazteak odol beroa du berez. Bere jai ta iritzi bideak isten ba-dizkiote, errez jotzen du indar bidee-

tara, bere eskubideak eskuratzeko. Elizak bere lana du onelakoetan sutua dagoen txingarra itotzea. Indarkeria beti gaizki ikusia izango du Elizak. Areago oraindik, indarkeri ori kristauon artean agertzen ba-da.

## EPISTOLA

San Paulo Apostoluak Ephesotarra egindako Epistolaren zatia. (3, 13-21).

Anayok:

Etzaitzela, arren, kokildu, nik zuengatik daramazkidan ez-bearrak dirala-ta; oietexk dira zuen aintza.

Orregatik belaunikatzen naiz ni Aitaren aurrean

Arengandian bait-dator seni-tarte guztia zeru-lurretan. Aren aintzako aberastasunaren neurrian, zuen barne-gizona bere Espirituz indartsukiro bizkortu dedilla zuen biotzetan, zuek maitasunean sustraituak eta oiñarrituak zaudeztelarik, orrela gai-izan zaitzeten neurtzeko, Santu guztiekin batera, zenbaterañokoa dan, zabal, eta luze, eta gora, eta sakon; eta ezagutzeko, jakinduri guztien gain dagon Kristo'ren maitasuna, Jaungoiko beteagan zuek bete-bete egin zaitzeten.

Eta,

guk eskatu ta asmatu baño oparago, guztia egin dezaken Ari, gugan ari dan indarraren neurriz, Arixe izan bekio aintza Elizan eta Kristo Jesus'engan, belaun-aldi oro, gizaldi ta gizaldietan. Amen.

## EBANJELIOA

Aldi artan:

Larunbatez, Jesus Pharisaitar nagusi baten etxera, bazkaltzera joan zan; eta aiek zelatan zegozkion. Eta, ain zuzen, urak zituan gizon bat zegon aren aurrean. Eta Jesus'ek orduan, legelari ta pharisaitarri onela galdetzen die:

—Zillegi da, ala ez, larunbatean iñor sendatzea?

Aiek, ordea, ixillik gelditu ziran. Orduan Jesus'ek, eldu, sendatu eta bidali egin zuan. Eta onela esan zien:

—Zuetan zeñek, semea edo idia poztura erortzen bazaio, ez du azkar-asko ateratzen larunbatean?

Eta oni ezin erantzun izan zioten.

Eta jatera deitutakoak, aurrengo alkiak aukeratzen zituztela oarturik, parabola au esan zien:

—Iñork eztaietara deitzen dizunean, etzaitz aurreneko lekuan eseri; ba'litete-ta zu baño geiago danen bat deitua izatea, eta zuri eta ari deitu dizutenak, etorri-ta zuri esatea: «Utziozu lekua oni»; orduan lotsaz azken-lekura joan bearke bait-dezu. Baizik-eta, iñork deitzen dizunean, zoaz eta exeri zaitz azkeneko lekuan; deitu dizunak, datorrenean, esan dezaizun: «Adiskide: igo zaitz gorago». Orduan eder geldituko zera maikide guztien aurrean.

Iran ere,

bere burua goratzen duan oro, beeratua izango da; eta bere burua beeratzen duana, goratua.

# HERRIAK ETA GIZONAK

## GURE IKUSTEKO MANERA

Azkeneko astean berri batzuek eman genituen Viet-nam'en gain. Oraingo ontan HERRIA, Baiona'ko astero-koan, argitaratutako artikulua bat zabaltzen dugu emen. Artikuluaren egilea Ipar-ameriketa'n dagoen euskaldun bat da. Artikulu onek Johnson'en argumento ta arrazoiak azaltzen ditu, bezaz Johnson eta Mac Namara'k berak izenpetu lezateke. Ortarako argitaratzen dugu au. Bakar bakarrik adierazi behar dugu ez dirala europeo batzuek artikulua ortan esaten dana egia ez dela sinisten dutenak amerikano asko ere bai ta ez nolanhikoak gainera.

«Hor European iduri duzue erdi-itsutuak zuen kazeta, radio eta telebista direla kausa. Burua hantzen eta berotzen dautzue, eta ez duzue hainitzek suspexatzen ere xantza duen munduak Amerika hor baita zaintzale, ixtant bat segurik.

Ari dira zuen buru-berotzaileak ezin aski beltzuz Viet-nam-eko gerlari amerikanoak. Iduri luke amerikanoek dutela hasi hango gerla. Ez, ez dute amerikanoek hasi. Hego Viet-nam-eko lurra atakatu zituzten Ipar-eko komunikek Xina-ko korriek akulatutik. Horra egia. Vietnam hor-

behar badugu, ez dea marka gure buruaz orhoitzea ez dela hain gaizkil!

Gauzak ontsa ikusiz, behar dugu aitortu Xina dela mundu guziaz mehatxatzen duen erresuma. Bere sei ehun miliunz goitiko jendetzarekin ez da ondoko egunetan pretentzionerik gabe izanen Nahiko ditu lur eremu berriak. Jadanik Rusiari zaio. Ez da batere harritzeko. Xinari ez ziozkaten Rusoek kendu asko eta asko eskualde? Orain Xinak nahi luke Rusiak turna ditzan, bainan ez baitu Rusia hortari ari, ez estona bi erresumek ez baitute biziki elgar aditzen. Moskun ez dira beren Xinako haurride komunixteri fida, eta nahiago lukete Xina heda dadin Indiatarat, Australiarat, den bezala utziz iparreko muga; hortako ez dakite Rusoek nola joka xuxen: alde kontent dira, Amerikak okupatzen baitu Xina; alde kezu, zeren Amerikak ongi ihardokiz, Xinak berdin ausikiko baititu ekaldeko Rusia-kantoin batzul!

Amerikak bertzalde zaindu nahi ditu Pazifiko-itsas-ideak eta Australia, bere komertzioa dela kausa. Akordioz antola balite arranjamenduak, Xinatarrerik behar duten le-



Viet-nam'en guda amorrazi baten dabilta. One emen gizon bat deika bere turutarekin soldaduei. Noiz arte ofizio txar ori?

**nazio-arteko-unea**

## SYRIA'N ZALAPARTAK

RIKARDO ARREGI

Eguzkialde urbilean gauzak ez dabiltz oso legun. Eguzkialde urbileko estatu guztiak zalantza ta prolema aundiak dituzte. Egun batetik bestera estatu oietako bakotzak regimena aldatzea askotan ikusi dugun gauza izan da. Ez da ordea estatu bakoitzean bakarrik arkitzen al-daketa gogor baten arriskua eguzkialde urbill osoan bal-zik.

Gaur egunean bi joera dira indar artzen ari diranak alderdi artako estaden artean. Batetik Sauditar Arabai buru dutelarik eskubitarrak, reaktionarioak, Islam erlijioa bandera bezela arturik aldateten eta sozialismoaren etsalak diranak, bezaz okzidentekoan eta amerikanoen aldekoak. Bestaldetik berriz ezkeriarrak era bateko edo besteko sozialista diranak.

Oioen buru Nasser, Syria ta Irak berarekin d'joaztela. Ertzean bezela, nahiz eta mahomatarrak izan ez baidira besteak bezelakoak Iran eta Turkia okzidenteko parlamentario demokrazi tankerakoak dituztenak.

Azkeneko zalapartak Syria'n izan dira. Estatu au azken-eko gudua bukatu arte Frantzia'ren menpean eon zen eta amabost urtean amazapi "golpe de estado" delakoak izan ditu. Ba da marka austeak!

Syria'n gertatzen diranak ulertzeko kontuan izan behar dugu "Baas" izeneko partidua. Partidu au azken-eko guduaren bukaeran sortua izan zen. Bere partidu onen babesean sortu ziran arabe guztien batasunerako ametsak eta gogoak. Orregatik bereala zabaldu zen beste nazio-tara.

Syria'ko pentsalariak dira arabeen arteko trebeena ta zorrotz-nak ta ezin dute artu besterik gabe nasseristen buru izan nahia. Ejerzitua Baas partiduaren tresna-rik eokiena izatera iritxi da. Orrela 1949'an, desgin zuten burgesi aundia; 1958'an, Egipto'rekin batasuna egin zuena; 1961'an, batasun ori desegin zuena. Baiñan zuzen zuzenean a'ntaritzra Baas partidua ez zen iritxi 1963'na-arte. Ordu ezkerotik bi joeretan banatzen da partidu au. Alde batetik moderatuak, partiduaren eskubian dau-denak, burgesi txiki ta erdiaren laguntza dutenak. Auen buru Salh al Bitar izeneko politikalaria. Bestetik berriz erabat ezkeriarrak. Auen buru Salah Jedid jenerala. Bi-garrenok lehendabizkoa bota zuen gobernutik otsal-lean. Orain berriz lehendabizkoak Salh Jedid jenerala-ren gobernu desegia nahi izandu du baiñan ez du asmo ori betetzerik izan Oraingoz beñepein.

ñepein, planaren menpean erortzen geran estatu ontako biztanle guztiei baizik. Orregatik denak irakurri ta ulertu dezaten pentsamentuarekin egiña dago liburu au. Ekono-miaren aldetik bakarrik estudianten dute plan ori ta egi-ten dituzten kritikak fundamentuak dirala esan behar, Gaiñera plana bera aztertu ta kritikatu aurrean zenbait ezaguera ta konzeptu zabaltzen eta esplikatzen dizute gero planaren kritikak konkretuan askotaz ere obetogo uler-tzeko.

Ba dirudi sekzio ontan azaltzen diran liburu guztien-tzat erabat interesanteak dirala esatea, baiñan orrelakoak diralako aukeratzen ditugu, bestela ez luke sentidurik izango gure irakurle, gure iritzian, baliorik ez duen liburu baten irakurketa koseillatzea.

TOMAS LEIARISTI



Turutak mugituta gizon auk kuarteletik beren erriak defenditzera dijoazte. Arkituko al dute beren etxerako pake zuzen bat?

tarik nahi dute komunixtek bide bat ideki, gero aisexago barreatuko direla munduan gaindi.

Amerikak lagundu nahi izan ditu Hegoko jendeak. Hor xahutu diru eta indarren gatik, bakea ez balinbada orai-no plantatzen ahal, pentsa zer bilakaturko ziren ber-berik hango girixtino gaixoak! Aspaldian lehertuak izanen ziren oro, eta tropa gorriak irla edo ugartetan nagusituak, Indiako itsasoa barna.

Eta halere zuen berrikeriariak mindurika, Amerikano gaixtoek zertako ez duten Viet-nam-eko eskualdea uzten bere gisa, bakearen amodioz! Farntzuntziak, ez bertzeak! Bakea, ba, denek nahi dugu. Bainan ohoina sartzen bazai-ku etxean, utziko dugula, bakearen gatik, ebasterat eta hiltzerat? Ea, zentzu puxka bat, othoi!

—Amerikanoak, erranen dautzue, ez dira ez xoilki Viet-nam-eko jende onen alde artzen. Ba dukete bertze sabeleko minik!

—Baietz ba, gogoan dituzkete beren intresak ere. Fun-tsean, gure protsimo laguna gure burua bezala maitatu

kuaren emaiteko, xarmant litake. Bainan Xinako gobernuari etzaio aski. Komunizgoa sakatu nahi du denetan, ez bakarrik elhez, bainan orobat kanoi eta mitralleta kolpeka, bomba atomikaz lagunduz behar-orduan. Hain segur biha-ranun ederreri gaude, ez bagira nolazpait atzartzen eta norapait mogitzen.

Eta ohartzten gira «Estatu Batetaratuak» edo Washing-toneko Amerikak baizik ez duela funtsezko lanik egiten munduaren salbatzeko. Bertzeak (jeloskeriaz edo nik da-kita zergatik) ez zaizko urrundik ere jarraitzen: muthur dagozkie, afruntuak egiten diozkate, trabak emaiten, irudi horrela bera izigarri gora jartzen direla.

Ez dira ohartzten jarriarik diren adarra ari dutela berek segatzen xixtuka! Adarra krasgat-eta, zinaz eta minak, bai-nan berantegi.

Hortan gelditzen niz egungo. Ez niz batere segur kasu eginen duten irakurtzaiek ene erraneri. Bainan ez baita aho hetsitik ulirik sartzen, aintzina.

Idaho-tik abostuaren 8'an. J. EZPELETA

## LIBURUAK

### PLANIFICACION Y DESARROLLO

(INTRODUCCION AL PRIMER PLAN ESPAÑOL)

Barcelona'n dira etxe liburu argitarazaille batzuek gi-zarte gaiet izugarriko garrantzia ematen diotenak eta li-buruak argitaratzerakoan azken orduko ideiak eta joerak zabaltzen saiatzen diranak. Gaiñera momentu bakoitzean erdaldun irakurleak behar duten gaietaz prestatzen dira. Orain aitatzen dugun bezelakoak. Orain eskurartean dau-ken liburuak orrela izena du "Planificación y desarrollo (Introducción al primer plan español)", ekipoen egindako liburu den ezkeroz ez noa ekipo guztia aitatzeri. Liburu Barcelona'ko NOVA TERRA etxe liburu argitaratzaileen argitaratua dago ta lehendabiziko argitaralpena 1964'gn azkeneko illabetetan egin zen. Liburu merkea ta irakur-keta erreza duena da.

Ez da ahaztu behar liburu au oraingo "Plan de Des-arrollo" delakoaren asieran egiña dagoela ta gaur egunean plan orrek zuen epearen erdia pasata dagoela. Ala ere era-bat interesgarria dela iruditzen zait gaur egunean ere irakurtzeko. Plan orren alde edo aurka egon, era guztietara or dagon zerbait den ezker, ezagutzea ta ahalden zeaz-tasun audienarekin ezagutzea komeni da ta gure iritziak ematen dituguneean zertaz mintzatzen geran jakinda eman ditugun, beharrezkoa da gauzak jakitea. Ortarako dago egiña liburu au. Liburuak iru zati ditu. Iru zati oien ize-nak aukeratu dira: "¿Qué es la planificación económica?", "El plan indicativo" ta "La planificación en España".

Liburu onen egileak sarreran esaten dutenez "Plan de desarrollo" delako ori ez da profesional batzuei edo ta ekonomilariet bakarrik interesatzen gauza, ezagutzea bei-

# BERTSO BERRIAK

(doña mutikoxkor bat...)

1

Irurogeita seigarrena du ogeigarren gizaldiak, loraillaren erdiz atzera, ta, Usurbil ko erriak antolatuak izan ditugu egundoko jai aldiak, bertan ildako gizon aundi bat goratutzeko jarriak uste detanez autsiak dira orain arteko neurriak.

2

Ni jaiotz nitzan auzuan il zan gure Udaregi entzuna, aurrekoengandik, jakin degunez, akats aundirik etzuna. ikusten danez izan bearzun ark aparteko zentzuna oraindik ere entzuten degu bere bertso oiartzuna... aspaldi ontan bearrezko zan Usurbillen erantzuna.

3

Erantzun ori premizko zala bai batzuk artu benetan neke beldurrez etziran asi ekin zioten lanetan; eskatuaren ukorikan ez beste erriar danetan, pesta tartean bost txapelketa izanak ditugu bertan egun oietaz nor aztuko da gaur bizirik gaudenetan?

4

Pesta taldea asi bitzaigun Igokunde egunian eta lau egun igarore bai oso era legunian; batzuk atsegin izan zezaten beste batzuek lanian, beren almenak gogor astinduz gu lasai gauden unian, sarituak nor izandu diran or dator ondorenan.

5

Antzez lanetan lenen ertena gure Udaregi salla, bakarka berriz Arantxa Gurmendi izena dun neskatilla; abesti sortzen Aita Lekuonak lortu zun lenengo malla, Iriondo tar Mari Lourdesi abesten kentzea zalla, nunnai ta noiznai ezin da asi olako batzuen billa.

6

Idatz lanean lenen sarituk anai arrebak Arruti, gaur oso auzo bizi geranak naiz eta jaiotz urruti; etxera alai bilduak dira beren kopa eta guzti, barrena txapari eske jartzean badezute nundik busti, beingoarekin ez tenke egin zuek segi ola beti!

7

Oietaz gañera era berean ondo egin dutenak lana Astiazaran'dar Inaxio ta Maria Ixabel Sagarna. Aizpuru ta Pelix ori zan mutil txikitari onena, Manterola'tar Maria Milagros nexkatxoetan aurrena, ikusten degu idatz baratzan landare asko datorrena.

8

Larunbatian sei bertsolari izandu giñun gurekin, mugaz auztik etorri ziran Xalbador jauna ta Mattin.

Bizkai aldetik Azpillaga ta Mugartegi ere txit piñ, Guipuzkoako Lazkao txiki ta Agirre ere oiekin, Irigoienek gaiak jarri ta gozatu giñan berakin.

9

Iru egunak igaro ondoren etorri zan igandia, nagitasunik gabe zeterren gure erriruntz jendia; soñua joaz, erri alaitzen danbolintero taldia, erbestetikan etorrik asko, bertan iñor ez gordia, beste jaietatikan bazuan onek aparteko aldia.

10

Erri-buruak lenen zirala amarretan mezetara, sasoko iru apaiz erriar igo ziran aldarera. Igeldon dagon D. Fabian Loidik itzaldiaren gora bera, itz gutxirekin gauz asko esaten apartekoa da bera, ederki asko aipatuk ditu bertolarik eta euskera.

11

Ondorenean bertolaritik talde bat arrigarria txapeldun dagon Uztapidetik asi eta etorria; itz neurtuetan eman digute gauza askoren berria, luze motizian okerrikan ez, dana beartzan neurria Basarri jaunak jai zuzenketan balio baitu urria.

12

Bazkal garaian asarre gabe antzan ango zalaparta, orrenbesteko euskaldun pilla gutxitan elkartzen data; zopa ederra, naiko ollasko, arkumia eta tarta, txampaña gañez ta karriatzen neskatxa talde aparta, lendik andrerik ezdaukanak badu kolpe nora bota.

13

Zerutik ere izana degu igande ortan laguntza, aspergarri dan bero salastak etzizun kalka edo bultza; egoardi aldera guregan gendun txit aparteko eskeintza, gure soro eta belardietako etorkizunaren giltza, lur alde ontan maiz bear degun pare-gabeko ebi intza.

14

Bazkal ondoko elkarte ura nork ezdu izango goguan, ainbeste lagun izketan eta danak txit era gozuan; begiratuta bekosko beltzik iñork agertzen etzuan, nere barrena pozez gañezka, besteak berdin auzuan, zilipurdika bat erori zan da altxata parra egin zuan.

15

Bertsoak eta itzaldik eta txalo eta telegramak, esan ditudan egun oietan ezdira gutxi izanak, abesti eta ortaz gañera emen egin diran lanak joan etorriko ibillera ta beste eginkizun danak Zerutik eskertuko dizkigu Juan Jose Udaregi zanak

OLLOKI (Usurbil)

## NERE BORDATXOTIK

Basarri



## DANETIK ZERBAIT

Zarautzko erriak, gallur gailurreko seme bi oroitu ditu. Aita Salbatore Mitxelena, ta Lizardi'tar Xabier, olerkari gurenak.

Euskal literatura aitatzen dan bakoitzean gogoratu bearko diran izen bi, Mitxelena ta Lizardi.

1

Zu izan zera, Zarautz, seme oien kabi, nun sortu ote leizke beste olako bi? Aitatuko diranak gizaldiz gizaldi, bata Mitxelena ta bestea Lizardi.

2

Zuek oroituaz gaur danok, zar da gazte, merezia zenduten beste orrenbeste. Zaudeten toki ortan gozatu zaitezte, zuen txoko maiteak gogoan zaituzte.

Berri negargarri batek eratxita, deseginda, utzi nau.

Euskal erri guzian une kaxkar batean zabaldu dan berri tamalgarrila; "Errekalde" aizkolaria il da.

Errenkada auk idazten ari naizen garalan, besterik ezta



entzuten. Gaztelua baño aundiagoko ogeitasei urteko gazte lerdena lapurtu digu eriotzak. Etorkizun zoragarri bat eskutan zeukana; euskal aizkolarien errege izan bear zuana.

Oraindik ezta illabete Yurrebaso aizkolariak aitorketa au egiten zirala:

"Amaitxoko aizkolari ikusi ditut nere denboran. Onak asko, baña nere begien aurrean jarri dan aizkolariarik onena "Errekalde" gaztea".

Etzuan asko pentsatzen Yurrebasok, andik egun gutxira gorputz izango zala; biziogandik betiko aldendua izango zala.

Errekalde nun bizi zan galdetu nion Yurrebasori, berare-



zan Yurrebasoren erantzuna; kin itzegin, eta zerbait idazteko asmoak nituala-ta.

"Egun gutxi barru biok azalduko gera zuen etxera", izan

"antxe itzegino ditugu patxaran, astiro, itzegin bear diran guziak. Gai ederra izango dezu artikulu batzuk moldatzeko".

Ni bixitaren zai nengoan, Errekalderen gorabera jakiteko egarri bizitan; operazio ondoren zer moduz gelditu zan, osasunez nola zegoan, gerorako zer asmo zituan, eta abar, galdera pilla aundia egiteko asmotan nintzan. "La Voz de España" egunero-



koaren eta "Zeruko Argia" asterokoaren orrialdeak apaintzeko ustetan nintzan.

Jendeak Errekalde zein zan ezagutzea nai nuan; esan bearreko egiak esatea; illunpe batzuk argitzea.

Ta... nun Errekalderen bixita izango, Errekalderen eriotz be-




rria iritxi da nere belarrietara.

Naigabe beltzez josita gelditu naiz. Ari naiz makina zanpatzen, ari naiz papera letrez betetzen. Naiago nuke kolperik ez jo; naiago nuke ezer ez egin.

Ordu gutxi barru Azkoitirako bidea artu bear det. Gaur arratsaldeko seiretan dira illetak Azkoitiko Eleiz Nagusian.

Ez nik eta ez zuek eztaukagu beste laguntzik egiterik. Otoi-tzez lagundu bearko diogu, Jaun Altsuak betiko pakea eman daki.

Apala, umilla zan benetan. Ume aundi bat zala esango nuke. Belarritik eldu ta noranai eramane zitekeana. Errekalde




ezagutu ezker, derriorekoa zan bera maitatzea ta ixtimatzea. Guziok bereganatzen ginduan on utsa zalako, ta galzakeri ta maliziarren erreñurik ezagutzen etzualako.

Aizkolari bezela apartekoa azaldu zitzaigun gazte gaztetandik.

Ura baño egokiagorik, gozoagorik, artistagorik eztago izaterik.

Errekalde aitatuko degun bakoitzean auxe izan bear degu gogoan: azken aldera izan zituan joko guzietan, azken aldera plazan azaldu zan aldi bakoitzean, gaxorik azaldu zala.



Gaitz beldurgarriaren mende zegoan mutil gazte bat ikusi genduala lanean.

Alare, gaxo egonik, gaitzak almenak lapurturik ere, oraindik iñork egin etzuan marka bat egin zuan Errekaldek Donostin, 1965'garren urteko abenduaren amabigarren egunean.

Lau kanako egurretarra jokatuzan Polipasoren aurka.

Lenengo kanakoa, Errekaldek, 13 minutu ta 38 segundoan bota zuan.

Jokoa galdu zuanarren, zorionak ematera joan nintzalan, lenengo egurra ain azkar bota zualako.

Minutu baten okerra atera det ortan ere —izan zan Errekaldek eman zidan erantzuna—; bein baño geiagoton ama bi minutu ta erdian botata zegoan kanako egurra.

Ordurako gaxo zegoan mutila; gaitza asia zegoan bere lan zituala egiten.

Ontatik pentsa zenbaterano-koa zan galdu degun aizkolaria.



Jaunak beste batzuren osasuna eman balio, okerrik gertatu ezpaltzaino, nik eztertz pairik Errekalde izango zala euskal aizkolarietan lenengo; artzek jantziko zuala txapela.

Jende txar eta gaiztoa gaude.

Berriketan eta marmarreen ezkeria ixiltzen, Ezer jakin ez, eta dana bagendekigu bezela itzegin. Etziran gauzak esan, gezurrak zabaldu, iñoren ondrea ta izena zapaldu. Au da bear baño sarriagotan egiten deguna.

Ondo gororatuko zerate, Errekaldek Polipasoren kontra, lenengo izendatuta zegoan egunean jokaterik etzuala izan. Iru sendagillek, iru medikuk ikusi zuten mutila. Etzagoala jokatzeiko kondiziotan, esan zuten sendagilleak. Jokoa atzeratu egin zan.

Zer itxuskeri etziran esan orduan! Aitzekia zala, Beldurra- ren lanak zirala, gizatasun paltala zala.

Ta, ordurako, gaizki ere galzki egon mutila.

MUEBLES

### URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

Postas, 46

GAZTEIZ (Vitoria)

# GAZTE NAIZ

## Unibersidadea: Soluzio bakarria

Horaindik egun asko ez direla J. Ignacio Tellechea Idigoras, en artikulo bat irakurri nuen Donostiako "Diario Vasco" egunerokoen, Ikuitzen duen gaia (euskaldunen euskal kultura eza, karrera dunen hartean ere), oso interesgarri diritzait. Periodistarekin bat egiten naiz bere iritziz guzietan, nabarmen agertzen baita gure hartean ezjakintasuna euskal kultura mota guzietan. Berak dion bezela, millaka dire Noruegako lur-mutur ta izparren guziaz dakizkitenak, Tirso de Molina'ren obra guzien berri dakitenak eta Florenziako Palazzo Pitti'ren arte aberastasun osoa ezagutzen dutenak; baina behoben bizi leku den herria eta haren ibal eta mendi, oitura zahar eta zenbait semeen ekintzetaz hitzegiteko garaian ixildu beharko direnak.

Hau guziok dakigun gauza da, baita ere jeneralidade huntatik norbaitzuek salbatzen direla, baina ez didate ukatuko minori han bere kaz ikasia dela, autodidaktak direla alegia eta zorigaitzez autodidaktak izateko gutxi balio dutela.

Errez da "Nahi duenak ikasi beza" esatia. Euskera ez dakianak baditu klaseak, euskal kultura aldetik jantzi nahi duenak, baditu liburutegiak. Ezin eskatu zailo jeneralidade bateri heroe izatea; karrera bat ikasi bitartean

dibertitzeko garaian, estudiatzen jarraitzea. Erreztasunak behar dire eman, ez laguntzea debekatzea baita, esan ditek beraz hemen euskal kulturari dagokienez, erakusketak debekatua dagoela.

Honek badu erremedioa noski. Hor dabiltz zenbait intelektual prolema honeri soluzio bat arkitu nahian, ikusiko ditugu erabakiak eta bere garaian analizatuko. Ni-rearekin jarraituz, soluzioa euskal unibersidadea litzake; baina kontuz! Euskal unibersidadea esan dut, ez euskalerrian eginitako erdal unibersidade bat, hori ez litzake soluzio bat, hemen, han edo inperuan eginitako euskal kutsu, giro eta intenzioko unibersidade bat baizik. Euskaldunetaz pentsatuz eginitakoa, behoiek gogoko eta beharrezko dituzten galak estudiatzeko. Orduan sortuko litzake euskal intelektualidade bat, herrian zabaltzeko eta hitotzen gaituen ezjakintasun honekin bukatzeko.

Ni aspertua nauzute prolema guzien soluzioa bat dela eta beste soluzio guziek ez direla osokoak engañamendua baizik asatez eta gure adimenak entretenitze bat, soluzio eskasetan indarrak gastatze bat. Ez, egiazki eta zuzenki jokatzekotan prolema diren bezela planteatu behar ditugu. Kultura ezarekin bukatzeko? Unibersidadea. Euskal unibersidadea lortzeko?...

Jeroglifikoa ez da zailla adiskideok, jotzekotan jo dezagun burura, bestela sar gaitzen etxean, arrastaka ibiltzekotan hobe bai dugu hiltzea.

Etzazutela esan radikalista naizenik, ez dut ukatzen, gure helburu garrantzitsuena aaztu gabe proba ditezkeela beste zenbait bide, baina haletan itxi gabe; bide guziek Erromara eramaten badute ere, gure helburua ez baita Erroma. Batzuek eskuak igurtzitzen sumatzen ditut, gaitz handiena aaztuaz ximplekeri baten afanez aritzen geranian. Harrobi azpian gaude eta eskuatuekin ondar aleak kendu ezinik gabiltz.

Badakit zer esango duzuten, ez dela egun bateko gauza eta nik diodana luzaroko dela, lenbaiten behar dugula atakatu gaitza... Premiako osabide bezala unibersidadea besterik ez dut ikusten ordea. Euskal unibersidade hori ez da beharrezko hemen izatia, ez baldago gure mendi berde eta itxas baster eder borien premian. Kampean, edo hemen, osatu ditezke guzientzat beharrezko diren estudio jeneralak, guk partikularzki beharrezko ditugunekin, ni-re ustez arkitu ditek hau babestuko lukan unibersidaden bat. Bestalde hau errealtate bihurtzeko ez gera gure herrian buru eta diru faltan.

SAIZARBITORIA

*Bestelakoak al gera?*

### JAKINTZA BEARRA

Egun gutxi dira «Fiestas Euskaras» jaien barrenean, euskal antzerkia izan dugula, sarreren prezioa jakin eta antzoki barrenean ikusten nuen jende motak ikustea, gai onetaz zerbait idaztera bultzatuta naute.

Antzerkia «arte» bat da, edo bear du izan. Era onen bidez, gizon argienaren ideiak mendez-mende erriaren gana zabaldu izan dira. Era au izan da geienetan gizarteko akatzak leendabizi salatu dituen. Gaur egun iñoz bezin leial, idazlerik trebeenak era au aukeratzten dute erriaren gana irixteko.

Teatroa ez da ordea, idazlearen edergallu bat, ez ta ere antzezlariarentzat jostagarri bat bakarrik, teatroak bear ditu izan ikusleak, erriak antzezlari oiek entzun bear ditugun esanietaz jabetzeko.

Ez dut uste ordea, erriari ikuskizun oietara joateko atea asko idakitzen dizkiogunik. Egia da, atezainak ez dio sartu nai duanari ze mallakoa den galdetzen, ba du norknai sartzea, tikea, sarrera daramala noski. Ta or dago akatsa; sarrera oien prezioa norknai ordaindu al dezake? Ez, askotan ez. Urtean bizpauru aldiz izaten dirala ta, joaten dira bai «jauntxoak» ez diranak ere, ala ta guztiz ezin erriak salneurri oiek ordaindu, ta jakintza bide au albora utzi bear izaten du, bera ezin balia ditek kultura bide onetaz.

Jakintza negozio biurtu dugu ta ona emen ondorengoak.

«Fiestas Euskaras» antolatzen dituen C. A. T. erakundeak, 300.000 pezetako presupuestoa izaten du, gutxi gora bera, ta geienetan ortik gora bukatzen dute. Dirua zabaltzen dute zenbait sari emanaz, baina teatro garaia irixten danean, orduan ezin ditek pezeta bat bera galdu, baizik alik eta diru geiena irabazi. Teatroa negozio biurtzen dute.

Erriak ba du naiko lan kultura bereganatzen, ba du naiko lan bear bezelako gizarte bat sortzen.

Ez dira, ez, nolanaikoak aita baten buru austeak bere semeak jakintza bidean zuzendu nai ba ditu. Egun gutxi dire baita ere, gure arteko egunkari batean aita oietako baten kezak agertzen zirela. Oporketak bukatu ta laister bere seme alabak eskolara biala bear dituela oartzten zen. Lau seme alaba ditu, eta bi zaarrenak 7 eta 5 urtekoa eskolara joan bearrean, baina eskolara biala bear onek, aita orren bekokia argitu, poztu bearrean, illundu egiten zuen; eta ba zitun bere arrazoiak. Ori egin al izateko, bi aur oiek ikastolara biala al izateko, 600 peza illean ordaindu bearko zituela, alegia.

Langille orrek, ez jakiña izateak dakarzik zigorraren berri ba zekien, ta bere semearentzat beste egoera oieago bat desiatzen zuen; ezin ordea. Bere semeari ere, ikastolako atean ez diote ze mallakoa den galdutako, illen az-

kenean esandakoa ordaintzen ez badu ordea, ezingo du ikastola artara geiago biala.

Pozik zen, mutil zaarrena argi ta pixkorra zetorrelako, baina 14 urte bete bezin azkar ikaskitzak utzi ta lantegi batera zuzendu bearko zuanaren ziurtasun osoa zuen baita ere.

Mutilla azkarra baldin bada, aurrera aterako da, zion aita orreri periodistak. Bai, bearbada zerbait izango da gerora, diogu guk ere, baina ze malletan?

Bizitza osoan lanean ari dan aita ori, ta ori bezelako beste aunitz, ez dira alper gaiztoan goizetik arratsera lanean ari, bere seme alabari bearrezkoena opa ezin ba diete. Ez, ez dizkiete jakintza biderik itxiko, aita guziak zabalik arkituko dituzte; nola eziki!

Erriak ba du naiko lan, kultura bereganatzen, ba du naiko lan bear bezelako gizarte bat sortzen.

BEOBIDE

## HEMEN, GAZTEAGOAK

### NESKA ZAHAR BATEKIN

Atzo, antigualako neska zahar batekin mintzatu nintzen. Noski, ez ginen akort geratu.

Nire esanakin bihotza apurtu nion. Nitzaz zedukan ideia zikindu nuen.

Ukuitu genitun amaika puntu interesagarri ta norma den bezela aintzinean ez ginen inora allegatu. Aritzekoal Neska arek esaten zidan niri:

Kitarra ta euskal kantak ezin zitezkeaka junta (horretaz mintzatu da, soberan).

Gaurko pinturez ez zuala fitsik here ulertzen, baino... ziur zekien lau garabato gaizki eginak zirela.

Gero, gehiago, eta abar. Azkenik (ta honeri elduko diot) "Gazte naiz" eko artikuloekin atrebitu zen.

Ezkiyo hanetako nire lagun baten aurka altxatu zen. Inoiz ez nuen arrabia bortitziagorik artu.

Zutik jarri nintzen, tente, ta nire mingaineko indar guztiakin esan nion...

Etzen konbenzitu, ta jarraitu zuen esanaz, etzituela artikulo oiek entenditzen.

Orduan lertu zan nire pazientzia. Erantzun nion: Baina ez zara konturatzen zurea dala errua? Zuk dedukezu eskritore horri konprenitzeko obligazioa, ta ez ta dituzu aren eskritoak konprenitzen izanen da, etzeralako bear aina kultibatu.

Orduan, ez bakarrik moralaren aurka, eskritore orren aurka ere ba zoaz. Baina etzen kontuan erortzen. Etzekien eskribatzale aren biziak, bi ordu, edo bat, edo bost minutu galtzen dituala astero, jenteari bere ideiak (apurrak batzuetan) konprenarazi naiean.

Baina protesta eginen du. Eskrito onetaz enteratzen bada, seguru nire aurka errebeletuko dela.

Al ta, errebelatze ori, ideia, bat dakar nire adimenera. Lehen oharu zaidan funtsezko nota bat, artikulo au arront konpontzen duan nota bat.

Ogei urte. Neska zahar orrek ogei urte ditu.

EGIGUREN



TXARTELA BOTATZEN DUTEN BALANTZAK  
ETENGABEKO PIXAKETAKO BALANTZAK  
ERROMATAR BIKOTE BALANTZAK  
EDOZERTARAKO BALANTZAK

PIXUARIZETARAKO AURRELANAK ETA MONTATZEKO EGITARAUAK  
ESKATU GUZIEEN BERRI LOTURARIK GABE

**MOBBA'ri - Erakustokia ta Salmenta**

Etxaide, 5

Urrutizkiña: 17.192 - 12.800

• DONOSTIA •

(a'garren orrialde)k

## ERRENDERI

## NEKAZARIENTZAT

Gure nekazariak ifioiz ez bezelako aukera daukate gaurko egunean euren semei baserriko aurre-erapideak erakusteko. Donostiko Erri-Aurrezki-Kutxa'ren laguntza'rekin or dago Zabalegi, bertan ematen diran ikastaroak ez dira nolanaikoa.

Gure baserria aurrera atera nai ba-degu, ortik jo bearra daukagu: belardi txukunak, esnetarako abere bikañak eta ugari, igal-zugaitz edo fruta-arbolak nun-nai ta miyurak jo gabek, basetxe eder ta txukunak aurrerapen guztiekin famili sendoak azteko.

Gure biyarko baserriarrak egizko etxeko-jaun da etxeko andre, eskolatuak ta lan-pean biziko-ez diranak izan bear dute.

Ori nola lortu? Ikasiaz. Ortarako dago Zabalegi eskola eder ori.

Nekazari maite ori, bidali zure seme edo alaba eskola ortara, eguneko mantenua kostatzen dana ere ez dezu ordaindu bearrik izango, zer da bada gaurko egunean eguneko sei duro

Zoaz gaur bertan Errenderi'n Erri-Aurrezki-Kutxa'k (Caja de Ahorros Municipal'k) Fuero'en Plaza'n daukan ofizina eta eman zure seme edo alabaren izena, etzazu damutuko.

## EZKONTZAK

—Gipuzkoa'ko Zaindaria'ren egunez, ill onek 9, Guadalupe'ko Ama'ren elizan betiko batu ziran, Zapi-rain Lekuona'tar Arantza, lezoar neskatil polita ta errenderiar gazte jatorra dan, Mendizabal Olaiola'tar Xabier.

—Zorionak izan!  
—Gure eliz nagusi zarrean, Jose Inazio Etxabe ta Paula Labaka. Zorionak!

—Baita ere, Lezo'ko Gurutz Doña'ren elizan, Felix Alzola ta Loi Intziarte. Zorionak!

## ESKOLANIA

Mundua aldatzen ari dala bistan dago, baiñan era guzitan. Len, Eskolania edo aur-abeslari-taldeak, eli-zan edo eliz-abeslari-egutzen genitun.

Gaur aize berriak ditugu. Orain bertan, gure erriko Koperatiba batek dei dagie mutikoei Eskolani berri bat sortzeko.

Dana dala, ark edo onek, baiñan norbaitek egin beza lan ori, premi ederra dago gure errian.

## PELOTARIK

Laister asiera emango zaien Gipuzkoa'ko pelota-txapelketarako gure Touring-ek onako pelotari aukeratu ditu:

Eskuz (lenengo mallan) Goldaraz eta Agesta; eskuz (bigarren mallan) Torrecilla ta Cereceda; eskuz (bakarka) Minguez; pala motzean (bigarren mallan), Gezala ta Aizpura.

—Ea mutillak, gure erriaren izena goraltzen dezuten!

AÑARBE

## ORIAKO ALEGI

## KALE BERA KO PESTAK:

Oporraldia amaitu dira. Asi dira gure lanketak. Eta, era berean, asten gera izparingi onetako lanetan. Barkatu orainarteko gure alperkeria.

Orain «Santa Krutz» pesta auzat zerbait esanaz emango diegu asiera gure idazlanai.

Bail Kale-berako pestak ditugu. Azkeneko urte auetan ez dute leengo garrantzirik izan. Ez dakigu zergatik. Baiñan itxura danez, beñere ez bezelako alaitasun eta anaitasuna dakarte. Ez dakigu oraindik pesta auen berri, baiñan saiatuko dira, gure ustez, Miguel, Krutz, Lontxo... eta gañerontzekoak zerbait eratzan.

Gure zorian beroenak pestaegille ospetsu oei aibeste urteetan Kale-berako «Santa Krutz» eguna alaitu dutelako.

Ia nolako kutsua ematen zaien aurtengo pestai!

## BERROGEI TA AMAR

Arrituta gelditu nintzan! ZERUKO ARGIRAKO berrogeita-amar suskriizio dira Alegitit alajañ! Gutxi al derizkiozute? Eta, orretzaz gañera, beste ogei saltzen dira astero gure errian. Ez alda arritze-koa? Eta zeñi zor zaio aibesterañoko salketa? Ez al dakizute? Orain

go ontan, goratu bearrean arritzen gera, bada, gaztedi alegitarra. Jarrai ortan, gazteak!! Asko eskertzen dizute erri osoak, naiz ta zuek uste ez izan. Eta ez dira zuen lanak alperrikakoak izango.

Nik uste dut alegitar asko dagoala ZERUKO ARGIRARA suskribitu naiean. Egon Zai!!

## OARRA

ZERUKO ARGIA astekarian zer-txo bat idatzi nai duan guztiak, gure lagundu arren eta gure idazlanak sarriagoak izan ditezten, eman bezaigu mesedez bere idazgaia. Asko eskertuko zaizute. Orrela, denak alkarturik, obetogo joango da gue lana. Eskerrik asko berriro.

BOSTOK

## ZALDIBI

## GURASO - ELKARTEA

Azken egun hauetan bide zuzenetik jakin degu alkarrengana bildu ta gogoz sahiatu diran talde bereziak guraso elkarteak jarri ta herriko arazo-erabakietan parte hartzeko eskubidea iritzi dutela. Gure biotzeko zorianik beroenak biltzen dizkiogu horri hontatik, asiera emateko batu diran gizon da emakume jator oiehei.

Lenbalen talde ugari bat osatzen ta hartzen dituzten eginbeharretan buru argiz jokatzeko opa dizuegu.

«Ara-Berriz» zai egongo da zuen langintza ikusteko eta gusto haundiz azalduko dituzte Zeruko Argiaren bitartez. EKIN!!

## TOKI HARTZEA

Aurreko astekarian jarri eta bezelaxe Aita Imanol joan zaigu Ataungo San Gregorio'ra. Ill honen 4'an Meza Nagusia emanaz hartu zun toki hango bikaritzan.

Egun horretan, Zaldibi'tar ugari eldu zan San Gregoriara Txistulari ta guzti, hango kaleak alaituaz Aita Imanolen pena babesteko.

Amar ta erdiatan izandu zan Meza. Gain-berak jendez bete ziran. Oso ederki apainguta atera zan. Umetsokak, bat-batean, bapo abestu zuten. Itzaldia, Aita Imanolek egin zigun eta horretan, Zaldibitik ateratzek ematen zihon pena azaldu zigun lendabizi. Esanaz: «Arbola bat itxastan dijojean zanañ lurrari eras ten joaten dira eta gero arbola hori ateratzean, berakin batera, lurrera atera egiten da. Neri orixe berbera gertatu zait; baiñan ez ditut sekulan ahaztuko han eman zaidan mesedeak eta beti gogoan izango ditut, nere otoitzetan: zahar, gazte, umetsokak ta batez ere gaxoak». Eta segitu zun esanaz —«Orain emen naukazute lana egitea etorrita, baiñan zuen laguntza behar degu. honela, denok bat eginda Jaungoikoaren nahia obetogo bete dezagun. Erdaldunai ere hitz batzuek egin zien esanaz, atak zabalik edukiko zituztela eta sahiatuko zirela denai laguntza berdiñia ematen. Esan zien baita ere, bataioaren bitartez Kristogan denok gorputz bakarra osatzen degula eta gorputz batean zati guztiak beharrezkoak diren bezelaxe, era berean, denak, mixio ezberdiña eduki arren, beharrezkoak dira gorpuzt bakar hori txangu edo elbarri gelditu ez dedifi. Eskari auz egin zien: «Arren, errespeta dituzue Herri bateko hizkuntza eta oiturak».

Gero denai eskerrak eman eta Meza bukatzean txistulariak eleiz aurrea alaitu zuten bere doñuakin.

Artzai batek bezelaxe bere artalde hondo ezagutu eta Egi iturria iriakaz katolikozko giro sendo bat eratzea opa diegu, sekulan ere ahaztuko ez degun Aita Imanol'eri.

Ataundarrak! gustoa egon zinezteke holako apaiza lortu dezutelako. Or dijoakizue egun zoragarri horretan berak esana: «Apaiz gazteak esan omen zion: Imanol orain atera dan «clergyman» hori egin behar diagu. Aita Imanolek-Bai, baiño aurrea buzu banal!

ESKERRIK ASKO!!  
Esan diteke ahaztuta eduki dutelako gure herrian Zeruko Argia izparrengia saltzen alegintzen diren gazte leialak. Askotan, gai luzeak ibiltzen ditudalako, geienean astirik ez dagoalako baztertu antxean eduki zaituztet; baiñan, oraingoz denbora daukadanez zerbaitxo esan gabe ez nuke utzi nahi.

Lendabiziko ingandetan ibiltzen nitudan nola gazte batzuek ibiltzen ziran izkutu antzean astekari hau saldu nairik: Etxekoak etziela uzten, gaizki esanka astean zirela... nik ez dakit zenbat gauza —Baiñan, Jaungoikoak eman digun pi-

txirik ederretako bat zabaltzea, izparrengi hoek salduaz, lotsatu!!

Utzi txorakeri oiehei eta jarraitu salketa horretan.

Ar ditzazue nere txaloak.

«ARA - BERRIZ»

## MONDRAGOETIK

## AUTESKUNDEAK EDO

## ELEKZIOAK

Autaldietan gaude, eta arritze-koa ez dan bezela, bai urrutikuskiñez edo telebisioz, eta bai irrati bidez eta abar ari zaizkigute auteskunde oien garrantzia zabaltzen eta jakinarazten. Kaleetako ormetan ere ikusi ditzakegu txartel batzuek, onela diotela: «Vota al mejor».

Ez dago zer esanik ere, erri-auteskundeak garrantzi handia dutela erri baten goraberatarako, eta erri-tarrok or erakutsi genezakegu gure erri-tar izatea. Biar gure gauzak eta gizarteko goraberrak erabiliko dituzten erri-gizonak, gu aukeratu bear ditugu, eta gizartea bide onetik eta zuzenetik ibilliko bada, gizon zuzenak eta gizarte-kontzientziaren jabe diran gizonak aukeratu bear ditugu, eta ori garrantzi handiko gauza da, ta ez txantzetan arztekoa.

Baño, zer gertatzen da? Nik ez dakit beste erri-tar berriak, baño nere inguruan beñepiñ auteskunde garai auetan txepeltasun handia somatzen det: ardura eza, ajola eza, adore eza, ixiltasuna... Zer gertatzen zaigu? Galdu egin al degu gure erri-tararen kontzientzia?

¿Berdin al zaigu Pedro edo Juan? Ayuntamiento-etxea, erriko etxea da, erriaren etxea, ez erriko dirudun eta jauntxo batzuen etxea bakarrik. Erriko etxea guzian etxea da: zurea'nerea, ugezabena, langilleena, aberatsena, eta beartsuena, eta etxe ortako artu-emanak eta goraberrak guzian artean eta guzian erara erabagi bear ditugu, guziok izan bear degu gure etxearen arduradun eta ajoladun. Gure erriko-etxea ez da Kongoko erriko-etxe bat, Euskal-erriko erriko-etxe bat baizik, eta etxe ortan ez ditugu bear euskal-kontzientzia galduta edo saldu-ta dazkaten erri-gizonak. Baño nola izango gera gu etxe orren arduradun eta ajoladun, gure erri-tararen kontzientzia galduta badegu? ¿Nola, guk aukeratzeko ez paditugu bear ditugun ordezkari zindok?

ASUBEKO

## AZKOITIA

## JAIEN BUKAERA

Amaitu zaizkigu jaiak, ta erriak atzera lengo itxura artu du, ba lan-tegi guztietakoak asi dira berriro ere lanean, lengo era. Zer azkar joan dira jaiak. Izan, ere egun eder-rak azkar bukatzen bai dira. Baña jaiak ederki igaro ondoren, egun oietan oldozten, barrenean poz ederra degula etorzen gera lanera. Esan lezakegu aurten beste urteetan baño gazte jende geiagok urten duela erri-tar egun oietan. Batzuek itxas aldera ta besteak mendi aldera. Asko izan dira kanporatu diranak. Nik Urbain egon diranekin itz egin det, ta esan dutenez oso ederki igaro omen dituzte egunak. Makiñabat Gipuzkoa'ko beste erri-taroko gazte egiti omen dituzte lagun, ta baita gazteak ez diranak ere. Berak diotenez antxen bai lasai ta ederki ibiltzen omen ziran, guztiak adiskidetasun ederrean, euskaldun jator batzuek bezela. Orduantxe bai iritze omen zioten benetan Euskal-Erriaren zuek, ba berak diotenez, denak euskaldun bateri deritzaion bezela jokatzan zuten. Gauz bat ederragoa egiten zuan —esaten dute— ainbat ta ainbat lekuetako euskera aditza ba Bizkai ta Gipuzkoa'ko erri askoetako gazteak bai zuden. Benetan pozik etorri dira Urbi aldean ibilli diranak. Ez zaizkie arno kontuak oraindik bukatu ez, ba daukate datorren urte arterañoko saioa. Au gauz ona da benetan, datorren urtean ere ara joan bear dutela esanez ari dira. Egia esan gauz onek oso poz handia ematen digu, zergaitik onekin erakusten digute mendiak arrera handia daukala gazte artean. Ta ainbat ta ainbat lagun eder egiten da mendian. Jarraitu orrelaxe bai, ipiñi oraindik ere mendi zaletasun aundiagoa, Azkoiti'n ta beste erri guztie tan; ez bai dago ori baño gauz ederragorik, baztarrak piztu ta euskaldun guztiak esnatzeko. Gora MENDIGOIZALEAK.

## UMEEN TANBORRADA

Ill onen 3'an Azkoiti'ko umeen tanborrada, Plenzia —Bizkai'ko erri politara— joana izandu zaigu, ta jakin degunez oso arrera ona egiti omen zioten Plenzia aldean. Eun da amar ume inguru ziran joan ziranak, geienak amar urtetik berakoak, esan digutenez arrituta gelditu omen ziran aiti ume txikiak, alako ederki jotzen ikusita. Orta or bada UMORE-ONA bazkunak zelako arrera izan duan Bizkai aldean ere. Izan ere benetan oso polita izan omen zan, tanborrada. Zorionak bada Umore-Ona'koari ta jarraitu orrelaxe aurrean ere, ZORIONAK.

## MENDIGOIZALEAK

Ill onen 18'an Anaitasuna bazkonekoak izango dute beren irtera Udalaiz'tara, gero andik Besaide'ra jektiko dira, ba egun ortan ospatzen da «Día del Recuerdo» deritzaion eguna. Bertaratu nai dutenak eman lesakete beren izenak illaren amaluarako Domenech dendan.

## OSTIKOLARIK

Jakin degunez Anaitasuna berriro azalduko omen zaigu aurten ostikolari berri berriak bere taldean dituelarik. Ikusiko degu zer moduz portatzen diran aurten gure jokalariek. Azkeneko urtean baño agerraldi oieak egingo al dituzte. Ia lenengo mallan ikusten ditugun. Ori beintzat egin bear luteke gutxienez. Ikusiko degu bada zer moduz portatzen diran aurtengo urtean.

AMAIA

## NUARBE

## EZKONTZA

Ill onen 17'an ezkonduko zaizkigu erriko eleiz nagusian erri-tar Oiar-tzabal'dar Margarita neska jatorra, eta Zeruko Argia'ren arpediduna, errera'tar mutil Arizmendi'tar Fidelekin. Gure zorianik beroenak eta urte askotako izan ditezela biziera berrian.

## TXOKOTIK

Urtero bezela aurten ere Nuarbe'tarrik egin dute beren urteroko Arantzazu'ko erromes aldia. Guzira berrogi ta ama gizon-andre izan ziran Amaren magalean eguna igaro zutenak. Ondo dago orrelako egun bat gure artean antolatzea.

Agorreakin batera giñan gau-eskola astekotan gure mutillen artean. Neguko egintzarik biziena auz de gu zalantzarik gabe. Bertan geitzen bai degu gure jakintza, eta batez ere bituago arkitzen gera gure ekin-tzetan sartzeko, antzerki, ibillaldiak, dantzak eta abar. Tamalez baña oraindik asiera etzaijo eman. Bata bestearen aitzakiarekin atzera gelditu gera; ala guztiz ere aurrera egiten jakin bear degu eta laster asiko dalakoan gaude, ori ta geiago dira gure erriko gazteak.

Urte bat geiago ta ballara ontako jendea bitu zaigu aurten ere Kizkitza baseliza ontan. Egun ederra izan genularik zeñen ederki igarotzen dan ainbat kizkitzako erromes zaleen artean. Benetan jende jatorra ikusi degu aurtenuarten ere eta asko gañera. Jarrai dezala gurea degu ta Kizkitzako Ama.

Laster errento zaizkigu berriz ere gure artetik erriko neskek eta mutiko argiak beren ikasketak egitera. Erri-txo oni uztu andia ematen diote lenago txikia baldin ba-zan, auz alde egitean...; baña ala ta guztiz pozik ikusten degu biarko erriko gazteak ikusiaz izango ditugulako.

Ongi izan zaitezte, asko ikasi ta gorde beti zuen kabitxo izan dan Nuarbe eta ikasi zenduen izkuntz Euskera.

ITURTOKO

## ZEUTA

## SARRERA TA ARRERA

Dagonillaren 19'an soldadu-taldea beren morralak eskuetan daramazkitela abiatu zan Cadiz'tik trenean. A ze kantu ta jolasgure daraman kanpamentuko txokotik irte-tzean! Kaiolatik askatutako txori-gaxoa dirudi. Bostetan Algeciras'en giñan. Kaiera sartzean, ikusmira bikaiña sortu zan gure begien aurrean. Emendik ikusi nuan lenda-bizi —pizka bat urrundik— Gibraltar'ko arkaitz famatua. Oreraño España ta gero Afrika, Zeuta, gure ametsa!

Algeciras'en ametsen egin ote det!

Ez, au Algeciras da, ta gero au urrun-urrun Zeuta Bai, Algeciras'en gaude. Kalean dabillen jendea ere laterrikoa da geiena. Inglesak bere praka-motz aukin beste aide bat ematen diote erriari. Alako baten sartu giñan itxas-ontzi aundi artan; neroni beldur piska batek ikaratu zidan barrua lenengo; ma-reatuko ote nintzan beldur. Baña itxasoa bere-bare zegon eta itxas-ontzia poliki alderditara jo zuan.

Itxas gañean arrai bizkorrek jolas egiten zuten murgilleen zebiltzan. Piskat urreratu giñanean Zeuta uri polita begietara etorri zitzaigun. Erri tiki bat zirudin, etxeak alkarri tokirik ezin emanaz bezela; etxe koxkorrek bata besteari lotuta, Izar begiluze diz-diz egiten zuten zeru-illunean, Zeutari keñiuka.

Kaiera eltzean giza-taldea zai zegon. Soldaduzkatik etxeruntz joan bear zuten gaztedia. A ze pozik zi-joazten etxeruntz soldadu-mutillak! Soldaduzkako jantzi utzi, paisano jantzia, bat arriago dijoala dirudi. Azkenengo agurra emanaz Zeuta'ko lur oni ta beren soldaduzkako lagunei, itxas-ontzian guk noiz zutuko zeuden.

## ARRERA

Arerio artan biotza azkartu egin zitzaidan, ez nekian nun sartu nintzan, batea ta beste begira. Baña laister agertu ziran gure lagunak eta musika ta guzti. Irriparra irten zidan. Musika ta guzti gu soldadu-mutil gixajoak! Nora eramateko uestea ote dute? Laister jarri nintzan kuartelek bidean sartu giñanean, eta emen gaude Euskal-erriko soldadu-mutillak.

Sakabanatuta —batzuek emen, besteak an— Baña laister ikusiko gera alkar kalean. Emen ere euskaltzaleak badiugu, Jaunari eskerrak, eta dantzari ta musikalarri billa dabilte euskal soldaduean artean euskal jai aundi bat antolatzeko bidean. Onela danok anaitasunean gure oitara beti zar ta gazteok oroituko ditugu. A ze eder eta alai dan anaiak alkarren ondoan bizitzea. Naiz gure etxetik urrun izan familli alai ta zoriontsu bat egiten emen euskaldunok. Onela jarrai urrunengo uen tokatzen zeraten euskaldun-mutillak. Agur txiki bat euskaldun guztioi emendik.

ABAUNZ'TAR DANIEL

## LONDON

## EUZKO-ETXE BERRIA

EIZMENDI'tar BEGOÑE'k eta IRUSTA'tar TXARO'k London edo Londres'etik euzkera garbita eta polito idatzi dabe. Engelanderea ikasten diñarduela-ta euzkeltzaletasuna agertzen dabe. Edarto egitia.

Begoñe ta Txaro neskatil argi ta langiliak agertzen dira. Ori dala-ta nik neure zorionak emoten dautsiedaz. Baña engelandereaz batera beste gauzaxu bat ikasi biar leukie emen England onetan eta au da euren zuzenbidia besteoi emotia. Emen England'an beti idazki gutietan euren zuzenbidia idazki buruetan jartzen dabe. Begoñe'k eta Txaro'k ori egin ba'eben nun bizi diran jakingo genduke eta eurakana jo. London Atauen eta Zarautz baño aunditxua dala-ta ez da errez bata bestiarren barri jakitia, zuzenbidia emon ezik.

London'en bizi diran eta ZERUKO ARGIA irakurten dabenai auz jakin erazo gura dautsiet: *Ill onen 29'gnian, Iralla'ren 29'gnian, Mikel Deunaren egunez*, arratsaldeko zazpirtan EUZKO-ETXE barria onetsi edo bedeinkatuko dogula. Etxe orretara eltzeok argibidiak oneik dira: Etxea bera dagon tokia auz da: 72 *Greencroft Gardens N. W. 6, London*. Araño eltzeok zeuen belbil edo tarrantik ez ba'dozu, ala belbilarin edo taxi bat artu gura ez ba' dozu, artu LURPEKO bultzia (Underground). Lurpeko edo underground dan orretan aurkitu BAKERLOO-LINE eta jo FINCHLEY ROAD geldoko edo estasiñora. Geldoki orretatik urten, artu zeuen eskumara eta bigarren etxearre edo kalea, beraxe dozu GREENCROFT GARDENS. 72'gn. zenbakian EUZKO-ETXEA ikusiko dozu.

Euzkeltzale taldetxua an batuko garala deretxat. Ez dira danak euzkotarrak ixango; bai dira euzkera maite eta euzkera ikasten diñarduben Englandar eta judarrak be. Euzkerea gero ta geyago zabaltzen da emen eta beste baster batzubenan.

URTZAGO

# "Ifernuko dirua" edo Larzabal "aferra"

P. Larzabal'eri buruz edo ta Agorak antolatutako Antzerki Saria'ri buruz zerbaite agertu bearra dago.

"Ifernuko dirua" izan zan Labayen, Zubikarai ta Karraskedo jaun epaillak aukeratutako antzerkia. Ondoren ordea, Agorak zionez "plika" edo giltza ez zuala bialia antzerki onen egilleak ta berriro beste bat aukeratu bear izan zan, ta guztioak dakigun bezela Ernani'ko Sarriegi jaunarentzat izan zan saria.

Sarriegi'ren antzerkia ez ba dut ezagutzen ere, asko poztu nindun berri au jakiteak, benetan merezia bai du jaun onek, bizitza guzian euskal antzerkiaren alde egin duan lan guziaren ondoren bezela. Ernani'ko euskaltzale jator oiek ba dute orain aukera ederra jai eder bat prestatzeko, ta benetan sinestekoa da asko itxaro gabe berri on ori zabaldu bearko dugula.

Nola nai gaurko onetan, gorago diotan bezela, ez da nere asmoa Sarriegi jaunaren antzerkiatza idaztekoa. "Ifernuko dirua"rekin ze gertatu ote zan jakiteko irrikiz giñan eta ona emen Iztunde Taldeak antzetzutze zuala ta Larzabal jaun apetzarekin itzegiteko era egokitu.

Ez dut uste bearrezkoa denik Zokoa'ko errore jaunaren berri ematea; guzian ba batit bat arira.

—Idatzi berria al zendun "Ifernuko dirua"?

—Bai, azken egunetan, sariketara bialia al izateko bukatzen aritu nintzan.

—Zuk antzerki ugari idazten ba dituzu ere, sariketetan gutxitan agertu oi da zure izena; nolaz gertatzen da ori?

—Egia da bai; sariketara oso gutxitan bialia izan ditudala nere antzerkiak. Nik, edozein garaitan idazten ditut eta ez dira ondo etortzen gelaetan sariketa egunak. Agora sariketara bialia ba nun azkenengo au, nere adiskide batzuek ala erregutu zidatetako izan zan.

—Datorren urtean bialiko al duzu beste bat?

—Ez, ez det, uste. Aurtengoan gertatu dana gertatu ondoren obe izango da alperrikan ez aritzea.

—Giltza, "plika" bialtzea aaztu egin al zitzazun?

—Ez askotaz gutxiagorik ere. Bialia izan zanaren ziurtasun osoa dugu. Dugu, esaiten dizut ez baizan nere gauza bakarrik izan, baizik eta beste bi adiskiderek nengoela aietako batek denen aurrean sartu zuen. Gero, gerta ditakena da Donostian obrak ateratzeko garaian "sobre" txiki ura galdutzea, bannan bialia, ori ziur gaude bialia zela. Gañera bear bezela oñarriak bete ez ba nituen, nere antzerkia leendabiziko unetik sariketaz kanpo gelditu bearko zuan izan; artu zutenian gauzak ondo ez ba nituen egin, antzerki orrek ez zuan inoiz epailearen eskuetara iritxi bear, iritxi egin zan ordea.

—Nolaz jakin zendun itxillu onen berri?

—Antzerkia saritua izan zanean, telefonoz otsein ninduten esanaz nola "Ifernuko dirua" izan zala aukeratu ta epaillak lapurteraz idatzia zegoelako nerea izango ote zan uste ba zuten, plika ez agertzean ez zekitela ziur norena izango ote zan, ta argitasunen eskatuaz. Nik, telefonoz baletz erantzun nien, nik idatzia zela, ta nola nai beiala eskutitz bat ere idatzi nien gauz bera agertuaz. Ortik aurrera ezer gutxi dakit nik, nola nai ez nuen inoiz pentsatuko gauza orretan bukatuko zanik.

—Ez, dira ez gauzak zure alde joan oraingo onetan.

—Leen ere gerta zitzaidan onelako zerbaite, eta ez nau gelegi arritu. Orduan "Okillomendi alkate" izan zan aukeratu, ta "kanpokoa" nintzalako leendabiziko saria eman bearrean bigarrena eman zidaten, eta gauzak oraindik okerrago egiteko, gero antzerki ori beste baten izenean agertu.

—Nolaz gertatu zan ori?

—Urte gutxi direla, Donostia'ko Euskal Jai batzuetan.

—Oitua zera orduan gauz aue-tarata onek ez dizu atzera bultzatu zure antzerki idatz lanetan.

—Ez, ez orixe. Oraintxe bertan ere gertatuak eman dit gela beste antzerki bat idatzeko; ia dena buruan det, baita nola izendatuko detan ere.

—Nola?

—...

—Ikusten dut bai 30.000 pezta galdu ba dituzu ere umorerik ez duzula galdu. Bejondeizula ta orain antzerkia ikustean erriak epaituko du berriro, ia dirurik gabe sarituko antzerkia, gai zan ala ez. Nik, nola nai aurrez ematen dizkizut zorionak, bukaeran txalo ugari entzungo diranaren ziurtasun osoa bai dut.

—Ala izan dedilla.

Iñaki BEOBIDE

## GURE LIBURUAK

### BEOBIDE-KO AITA FR. KRISPIÑ

AUSPOA liburu sorta barruan beste bi eman dizkigu Aita Zabala asper-pergaitzak. Jesulagun onek, bere erri-euskerazko liburuaz Euskal-erri osoa bete bear digu.

Aurrena, 57-58 lumeroz markatua, Beobide'ko Aita Fr. Krispiñ'en ASIS'KO LORIA eskeintzen digu. Lareun da lau orrialdeko liburu maiztua. Aita Villasante'k liburuaren itzaurrean ederki esaten digu:

"Ain zaharra ezpada ere, guztiz ahaztu degu euskal idazle onen izena. Neroni ere pasatu egin zitzaidan gure literaturaren kondairan. Esker oberik merezi zuen, ba, gure aldetik aren liburu ederrak! Biografi-sailean ez degu euskeraz onen adinekori ezagutzen".

Aita Krispiñ azpetiarran zan. Bizia etzuan oso luzea izan: 1848-1891 urteen tartean irau zuan gure artean. Espainia aldean urte txarrak ziran praille ta mojentzako, ta emen ostaturik etzutela, Bidasoz bestaldera jo zuten praille sail batek Donapaleu'n prantzikatari bigarren piztualdia emateko. Auen artean, Fr. Krispiñ'en osaba bat arkitzen zan, eta ara joan zan gure idazlea ere. An, bere bi anai zarragoekin praille eskeintzak egin eta Aktantia'ko probintziko seme izan ziran irurak.

Gerotxoago Kantabria'ko probintzira aldatzen zaigu Krispiñ, eta Tolosa'n kokatu zan 1875'garren urtean. Gero Zarautz'era iges egin bearrean arkitu zan, karlista gerretako istilluak zirala-ta. Berriro Tolosa'ra ekarri zuten eta emen argitatu zuan bere liburu. Bere euskera aitatuaz, au dio Villasante Aitak:

"Gipuzkoa osoa zegoen euskaltasunaren itxasoak estalita... zearo ta arras euskalduna zala gure erria. Eta itxaso orren erdian murgildurik bizi danari, jakina, euskaltasun mar-dul gozoa dario alde orotarik...".

Orra, bada, joan dan Gipuzkoa'ko euskal-giroa ezagutzeko liburu-rik egokiena. Aita San Frantzisko'ren bizitza, euskerarik gozoenean emana. Ar zazu ta zabaldu bere orriak. Bazka ezin ohea eskeiñiko dizu.

AUSPOA sortari jarraituaz, 59'garren zenbakiz joa dator urrango liburu xaloa ere. AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA du izena, ta izenak naikoa esaten du, gaia zer duan jakiteko.

Axentxio bertsolaria, Orio'n jaioa degu 1890'garren urteko Otsailla'ren 21'garrenean. Txanka Goikoa izan zan bere jaiotetxea. Gurasoak: Ignazio Maria Galo de Etxabe ta Josefina Joakina Gregoria Lertxundi'tarra izan zituan. Lau senideko familia ziran. Axentxio danetan gazteena. Bere denboran multzar gelditu ta bizi guzia bere jaiotetxean egin zuan nekazaritzan.

Bere izenik gabe agertzen zituan Axentxio'k bere bertsoak gelaetan. Iru sekretario ba-zituan bere asmatetako papeletan ipintzeko. Ala ere ba-ditu galdutako zenbait bertso ere. Azkenetako beti bere buruarekin bertsotan ari zala jarri omen zan. Asma ortik zenbat bertso buru utsean geldituko zitzaizkion papeletara aldatzeko. 1961'garren urteko Urriaren 13'an babarrun biltzera atera ta an arkitu zuan lurtean erorita bere illoba batek.

Joan berri degu, beraz, gure arte-tik bertsolari au. Arkibidean ikusten deguez, BERTSO BERRI bezela agertzen ditu Aita Zabala'k bere lanak. Urterik-urte or datoz liburuaren orrietan. Bakoitzaren goraberaz eta urtea jarri dizkio azaltzailleak.

Bertso zalea ba-zera, ba-dezu oraingo onetan janari errez eta gozoa. Bertsoa onela darion gizona, bere bizitzan etzan zozoa izango. Aren alboan bizi zitekean. Eraman zazu etxera liburu berri au eta neguko gau luzetarako, eroso etorriko zaizu. Gure aurrekoen euskal-giroa ta bertso jariora ezagutzeko aukerakoa dezu.

#### APUNTES PARA CLASE DE VASCUENCE SEGUNDO GRADO

Etxeberria'tar Juan Anjel adiskidea, etengabeko jarraioan ari zaigu aspaldian. Oraingoan "Apuntes para clase de Vasquence - Segundo Curso" argitara eman digu.

Euskera erakusteko bere Ikasbi-deak, iru ikastaro ditu, ta au du bere bigarren ikastarori dagokiona. Asieran berak esaten digu nola di-joan bere erakusbide au. Aurrena gure aditz edo berboaren jokabide batzuek jartzen ditu. Gero, auek erabiltzen ikasteko esaera osoagoak ematen dizkigu. Irugarren lekuan, gure idazleen zatiak datoz. Gure garaiko ta leixogoko idazleak datoz orri auetan. Iztegia ere ba-dakar eta esaera batzuek, ikasleak erreza-ago ulertu ditzan, zeatz azaltzen ditu.

Bizkaitarrak laguntzaille jatorra arkitu dute Etxeberria adiskidea. Jarrai beza gure anaiei laguntzen.

## KUTUNKI

Arantzazu'ko Ama Birjiña maitea'ri

Kutunki eta apal nator gaur  
Zure aurrera.  
Zerbait esan nai ta egiñalez  
Zu aintzaltzera...  
Egiñalez Zu goi-goraltzera.

Aloñamendi!! Ama agertu zan  
Leku gelgari.  
Elorri eta arantz-artearen  
Loretxo zuri...

Arantz-artearen Ama maitari.  
Arantzazu'ko Ama Birjiña  
Gozo, ezitia.

Udaberrian egunsenti'ko  
Euzki dizitia...  
Egunsenti'ko lore usaikia.  
Dana esan nai ta nola esan  
Zeran guzia?

Itz bitan orra esan: Zu zera  
Andre Maria...  
Zu zera Jainko-Ama-Garbia!  
Jaungoikoaren Ama zera Zu,  
Ama biguna.

Zugan sortu zan Jaungoiko altsu  
Seme kutuna...  
Jaungoiko altsu, guzi-alduna.

Ordu onean jatxi ziñan Zu  
Gure lurrera.  
Anai arteko burruka aundia  
Amaitutzera...  
Burruka aundia betiko iltzera.

Zar eta gazte, alai ta pozik,  
Zure aurrera,  
Naiz ta nekatu, gogoz dijoaz  
Otoitz-eitera...  
Gogoz dijoaz Zu maitatzera.

Udaran kiskal, neguan izotz,  
Nekazaria!  
Askotan bear Zure laguntza  
Unkigarria...  
Zure laguntza alaigarria.

Eta Zuk Ama on, biotz-bera  
Ta maitetsuak  
Errukiturik pizten dituzu  
Zelai, soruak...  
Pizten dituzu mendi, basuak.

Arrantzaleak estu ta larri,  
Itsas bizian.

Orduan ayek Zuri aieska  
Estualdian...  
Zuri aieska zintzo otoitzian.

Ta arrantzaleak ez dituzu ez  
Inoiz baztertu.  
Eriotzako ordu larrian  
Oroi zera Zu...  
Ordu larrian gaizka dituzu.

Diego de Butron zintzo eldu zan  
Zure aurrera.

Zuk on-egiña biotz-biotzez  
Eskartutzera...  
Biotz-biotzez Zu laztantzera.

Bederatzireun dukat poz-pozik  
Emanaz Zuri,  
Gogo onez, xamur, bere biotza  
Zugan zun jarri...  
Bere biotza maitez erdibil

Baita-re urrezko kollare eder bat  
Zuri eskeñi,  
Ta eskar onez bere begiak  
Malko ugari...  
Bere begiak negar ler zoril

Am maitea: Euskaldun danen  
Eztigarria.  
Gure naigabe ta illunaldiko  
Izar-argia...  
Illunaldiko euzki-diztia.

Txorriak kantuz Zuri kantatzen  
Alidi, yostari.  
Gu berriz emen gau eta egun  
Estu ta larri...  
Gau eta egun zotinka Zuri!!

Gure azkena datorrenean...  
Arren ez utzi!  
Lur au lajata zeruan-alai  
Zurekin bizi...  
Zeruan-alai kantari betil

Ama txit ona: Agur, banua  
Zure ondotik.  
Zugandik urrun... maiteko zaitut  
Biotz barrutik...  
Maiteko zaitut gogo guztitik!

SATARKA

(1) Arantzazu-ko sariketan  
saritutako olerkia.

## Coca-Cola'ren Idatz Leiaketa atzeratua izan da

Euskal aurrentzako sortutako Idatz-Leiaketa'ren berri, orri auetatik zabaldua izan zan bere garaian, eta aldeketa bat izan danez berriro aritu bearrean gera.

Antolatzailearen asmoa zan, joan dan illaren azken alderako leenda-biziko lanak jasotzeko epea itxitzea, aurrak ikastoletatik kanpora, oportetetan eragozpen aundia zan ordea nai ana lan bildutzeko, ta orretan aritzen diran "andereñoak" oker ori Coca-Cola'ko zuzendariari jakin arazi zioten ta erantzunik eskergarriena eman ere bai. Ori dala ta datorren illaren azkenetate luzatu da epea, nor berak egin bear dituan lanak bialtzeko.

Ipar-ameriketara joan nai duten neska-mutillak, oraindik ba dute beta beren lanak bialtzeko; baita ere irakasleak bere neke guzian ezker bezela, neska edo mutiko orri-erri lagunduz ibillaldi bera egiteko.

Aurrez bear dan ana garbi azaldu ez ba zan ere, esan bear dut neska edo mutiko irabazleari bere irakasleak lagunduko diola Ipar-ameriketako ibillaldian, eta ikastoletatik kanpo dabillen batek irabaziko ba lu, lanak bialti dituzten ikastoletatiko "andereñoaren" artean, zozketa baten bitartez erabakiko dala, laguntzalea nor izango dan.

Gure asmoa da, aurrerantzean orri auetatik Leiaketaren berriak zabal-tzea, interesgarria izango dala uste bai dugu. Nola nai oraindik ezer etzene-kizutenak bere berri, idatzi Coca-Cola etxera, Donostiara, oñarriak eska-tuaz ta leenbaitlen idatzi arazi zuen semealabari beren lantxoan.

IÑAKI



radio tv

Saltzaillea:  
**CENTRAL DE MATERIALES ELECTRICOS S. A.**

Beste edozein markakoa balño  
Iru aldiz berriago ta gaurkoagoa

Ordaintzeko erreztasun aundiak

# GAZI - GAZAK

Iluntzean betiko lez ardauxoa edatera yoan zanean, etzala ondo aurkitzen, esan eutsen Txanton'ek bere lagunei.

—Zer yazoten yak bat? —galdetu eutsen—

—Etxakiat, Eztantuet ez er esan gura izan baña zortzi egun gutxienez yaroadaz gogo-txarrakin, da gaur, inoiz baño makalago aurkitzen nok.

—Ba... neuk emongo dauat tarjeta bat, Bilboko neure adiskide osagille on batentzako, ta urregorako laga barik yoan adi biar; orrek gauzok ainbat azkarren erabagitea oba izaten dok.

Urrango iluntzean, Bilbotiko osterea egin ondoren, an azaldu zan Txanton' tertullara.

—Da? zer esan dauk ba osagilleak? —galdetu eutsen batek.

—Gauzonik ez. Hidropesia dau kadala.

—Ja, ja, ja! Hidropesia ik? Ik ardauxo-presia daukak!

Au jazo zan lekuko erara kontauko dautzuet.

Ermuko Santixagoko parroki-xan mesia erantzuten eguan akolikuari, bere praka-laburrak eraztego gogua etorri jakuan.

Larritxasun orretan, burua bueltatu jua atzera ta bere lagunetarik bati, señegaz, bere lekua betetzera juateko esate-jotzan, larri be larri eguala-ta.

Lagunak konprendidu jua zer pasatzen zan, da, jagi ta jua zuan aren lekua betetzera.

Abadia ezuan konturatu an egin zan kanbixuarekin.

Bere zeregiña eixera jua zan akolikua etorri baño len, abadia bueltatu zuan da besuak zabalik kantau jua:

—iDominus bobiscum!  
Itxilik mutilla.

—iDominus bobiscum!! —erre petidu jua abadiak, len baño gogorrako, kontestasiño eske. Baña len lez, ixillik mutilla, etxakixan introitorik tautik beta.

Abadiak, berotuta, kantau jua irugarren bidar:

—iDominus bobiscum!!!

—Jauna... "Dominus Bobiscum" KK eixera jua da —kontestau jotzan mutillak, akolikuari deika ebillalakuan.

—oOo—

Aita-semeak an doaz ondartzazear. Semetxoak bai diñotso:

—Aita, nik baña artu nai dot.

—Ez; gaur ez tok bañurik artuko, ur-biziak dagozak-eta. Gerotxoago negarti:

—Aita, nik baña artu nai dot.

—(Asarrez) Ezetz esan dauat, ikontxo!

—(Negarrez) Nik baña artu nai dot, aita!

—iAartik ba! baña ittoten baaz, mosua apurtuko dauat!

ABELETXE

# IKUSMIKUS

BA OTE DAKIZU...?

1. "Iziartxo" ta "Aitona ta billoba" antzertien egillea?
2. Iru esaera auek osatuko al dituzu?  
A) "Gurutzetik iges dabillena..."  
B) "Lur gutxi..."  
C) "Asiak egiña dirudi..."
3. Lurbiran biztanle geien dituzten sei urien izenak?
4. Europa - Amerika itsasoz laisterren egiten duten bi urontzien izenak?

«ON» - «KO»

Bi itz auek gure-gureak ditugu; gureak eta noiznai itzetik ortzera darabilzkigunak. Guk ezezik ordea japoitarrek ere bere-bereak omen dituzte ta esanai sakon eta mamitsuaz gañera erriaren izaeran errotuak daude.

Bizitzeak soil-soilik edozein izakiri erantsi oi dizkion erantzunbearrak "ON" ortan esituak daude. "KO" berriz guraso naiz indorenganako erantzunbearra da.

Bi itz labur bezin sakon oien aurka jokatzea japoitarren artean utsegite itsusi ta larrienetakoa omen da.

Oitura eder eta jokera zuzen oiek dituzten erriak aintzagarri dirala aitortzea dagokigu.

FUTBOL

England'en jokatu berri dan ludiko zortzigarren futbol txapelketan jokaldi ikusgarri ta gertari aipagarri asko izan dira noski. Neri atsegiñen izan zaidana, auxe:

Portugal - Brazil jokuan europar jokalar batek eraginda Pele aurrelari bikaña oñazez etzanda gelditu zan. Brazildarrak galtzen zijoazen eta Pelé bulartsuak jokuan jarraitu nairik oñazeak baretzeko inyezio bat eskatu zuen. Une larri artan Feola gertutzalleak artutako erabaki zurra benetan aipagarri dala uste det:

—"Ez, ez...; gizona jokalaria baño lenago da". Eta Pelé aundia jokitik aterria izan zan.

Kirol barrutian ikusten diran ainbeste ekintza zikin eta itsusien aurka azaldu bear genuen asarre bizia nabarmenago izan dedin poz-oztik dakart Feola'ren erabaki txalogarri ori.

Txalo bero-bero bat ba Feola'ri ta agur biotzetikoena Pelé jokalaria bikañari.

EMAKUMEAK, GORA

Gizona ta andrea bi izaki dira; inoiz ere ez ordea bata bestearen gañetik jartzeko. Alare, bakoitzak bere aldetik ezaugarri berezi ta nortasun nabarmenak dituztelarik norberaren mallan jartzea da bidezko, ez gorago, ez berago.

Nere ustez, andre-gizonen arteko auzi au txatxua izan da beti ta su ori txingar berriz astintzeko ez det. Bai aitatu, ordea, poz-oztik aitatu ere, etxeokandre maratz bezela ezezik etxezuloatik atari dituzten ekinetan ondorio pozkarriak erakutsi dizkigutela emakumeak. Lurbira osoko erri guzietan ba dira emakume argi ta langilleak goi malletara igo diranak.

Eta bakarka ezezik taldeka ere aintzakotzat artzeko diran agiriak ikusi berriak ditugu. Orra Chile'n gertatua, berdin Republica Dominicana'n ere. Chile'n Frei lendakaria ta bere kristau demokrazaleen gurenda emakumeen laguntzari esker izan zan. Berdin Republica Dominicana'n ere ta emen Balaguer lendakariak bere eskerrona azaldu naian "Gobernadore" guziak emakumezkoak autu ditu. Ontan urrutiegi joan ote dan uste dezake norbaitek baña nolana ere emakumeenganako onginaia agirian gelditu da.


Urrutixago berriz or degu Indira Ghandi Indi erri zabaleko lendakari. Beraz, emakumeak, gora.

Bakoitzari berea ezagutu bear bazaio ezagutu ta aitortu dezagun emakumeak ondo irabazia dutela aipamen ori. Neri beñepein ben-benaz atsegintze zait lerrotxo auek beren omenez eskeintzea.

ERANTZUNAK

1. Bitor Garitaonandia, apaiza. Zaldibar'en jai, Donosti'n il (1929). Bera "Argia" asterokoaren zuzendari, ni gaztetxu, euskal barrutian nere leneko saiok orduntxe asi ziran; Poz-atsegiñez gordezten det oroitx kutun ori.
2. A) ..... bera josiena.  
B) ..... aldatz gabe.  
C) ..... egiñak urre gorri.
3. Tokyo ..... 12.200.000  
New York ..... 11.300.000  
Shanghai ..... 10.400.000  
London ..... 10.000.000  
Paris ..... 8.700.000  
Mosku ..... 8.500.000
4. "Queen Mary" ta "Queen Elizabeth"; bost egun.

A - BI



—Halaxen da, bai. Ni poesia soziala egiteko proletarioaz jazten naiz.

FUNCOR, S.C.I.

Benetako baserriarrak bear dituzten MAKINAK:

BIRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE  
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizun'k onenak, emenge nekazarientzat

ADI TA OROI EZAZU

FUNCOR

ELOERIO

AZKAR BEZIN ONDO  
Vizcaya 114

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10 Urrut. 17751 Etxekoa 22700 DONOSTIA

SAN BLAS, SAN BLAS,  
SAN BLAS...!

Udan kendu eiguk egarria; Neguan osatu ez-tarria. Ze edari, SAN BLAS edaria!

Gozoa eta maitagarria.


Gorostiaga eta Góitiso  
BILBAO



Ereria epela dagola?

FAGOR'ek oztuko du berela

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11



Itz-gurutzetuak

idazki gorengoaren egillea. — 6. Arotzen lokarria. Urruti, urruneko. — 7. Aiztur, guraizeak. (a. a.) Egon aditz jokaldia. — 8. Zebakia. Barzakia. Lokarri, albaña. — 9. Ospea, aipamena. — 10. Urte asiera. — 11. Elai, egabera.

GOITIK BERA

1. Oe estalkia. — 2. Zorabiatu, txoratu. — 3. Itxasoan ur palasta. — 4. (a. a.) Antzeko, berdintsu. Begiratu! Zalantza agerpena. — 5. Bizkor, azkar. Izakera, izatasun. — 6. Baserri-atea, langa. Nere amaren aizpa. — 7. Errekako arraitxo. (a. a.) Jabetza atzizkia. — 7. (a. a.) Ekin, eraso. Eraz egatzen da egaztia. Gisa-atzizkia. — 9. Aika, negarka. — 10. Neketsu, latz, gogor. — 11. (a. a.) Atzeman, arkitu.

ZEARRETARA

1. Moztu, itaitu. — 2. Gizentasun. — 3. Naparro'ko mendierra. — 4. Egazti ta abereentzako alea. (a. a.) Azta, ikutze. Mutur, moko. — 5. Sofekoak lotzeko botoia. GERO

AGERPEN A

isa. Uso. Ara. — 9. Alaga. — 10. Nekagarri. — 11. orodi.  
Ote. — 5. Bizl. Izamen. — 6. Oteka. Izeba. — 7. Kabuxa. aneR. — 8. GOITIK BERA. — 1. Ozzal. — 2. Lilluratu. — 3. Olatu. — 4. edl. Ara. Aza. Art. — 9. Omena. — 10. Urteberri. — 11. Enara.  
Ako. — 5. Alla. Axular. — 6. Zuarti. Asago. — 7. Artazi. ogalD. — 8. Lau. ZEARRETARA. — 1. Ebaki. — 2. Loditsun. — 3. Izaba. — 4. Olo. iRU.

# PARISKO SORBONNEKOA

## Armand Minard irakaslea, Lekeition euskeraz ikasten

Euskaldunak, euren berbeaz ain itxi ta ain zabar agertzen direan ordu onetan, beste Europar jakintsu bat, Euskerearen ederrak biroratu dau, eta beste gizon argi askoren antzera, dakizan izkuntza guztiak jakin arren, gure Euskera zaarrak bere maite-sareetan arrapau dau.

Parisko La Sorbonne irakastoki entzutetsuan, indologo azkarra dogu Mr. Armand Minard, irakasle jatorra aspaldiko urteetan. Gizon apal eta ikastuna, or dabil ibili, gure erriko kale, bide ta ondartzetan.

Egunero ikusi daroe batzuek, bidez-bide, Gerrikaetxebarria jaunagaz etenbako autu luze ta sakonetan, batean gaztelaniaz, urrengoa frantses, eta orain, baita euskeraz be, geroago taugariago.

Errenderiko seme dan euskalari goren batek adierazi euskun:

—Aizu, or, Lekeitio aldean, Pariseko indologo irakaslea daukazu. Lasuntasuna nai luke, eta, nola ukatu?...

Eta andik lasterrera, abiau ginean Minard jaunaren bila.

Aren itzak jakin-arria<sup>o</sup>o diran ezker, berbaldi bateko gorabeherak azalduko ditugu emen.

—Minard jauna, eta Frantzeko Eskual-herria, ezagutzen al dozu?

—Ez ba. Ez naiz inoiz eron, an geldirik beintzak. Zearrean noala bakarrik ikusi dot.

—Eta emeneo Euskalherria, noiztik ezagutzen dozu?

—Esango deusut: orain amabi urte zapaldu neban lenengo Lekeitio. Nire emaztea, lau seme-alabok eta neure burua etorri ginean orduan. Eeta baita arrezkeru beste bost urtean be. Gearoago zapu urteetan, orraitio, beste erri batzue tara joan izan gara gure udaldia emoten: Italiara, Austriara, Alemaniara, Frantziako beste alderdi batzuetara. Eta aurtien... Parisen genozala, etxera bertara eldu yakun zabalkundeoko paper bat, eta Lekeitio etxe barriak egin zituela, ain zuzen Kurlutxu ganean, Karrazpiora begira, adierzoten euskun; eta salgei egozala. Orduan berpiztu yakun eritxu polit ona barrio etorteko su-garra.

—Zer yatzu atsegin Euskalherria?

—Itsasoa, ondartzak, mendiak, izadia, zugatzak, aroa... Eta erria ta erritarrak zetan esan be ez. Itsasoa maite dot igari egiten zale-zalea naizelako. Aro onean, islatik Labaganera bitartean dagoan lekua, igarian egiten dot, 500-600 besokada eginaz, eguzkia dagoanean eta itsaso ona.

—Erritarrak atsegin yatzuzala esan deustazu.

—Bai, eritxu onetan gizaseme ta gizalabak begiko yataz benetan. Alako demokrazia jatorra susmetan dot nik emen. Ez dago batzuen eta besteen artean, alako diferentzi nabarmenik. Guztiak ikusten ditut alkarrekin berbetan eta artu-emonetan. Eta umeak ugari, eta ondo zainduta. Eta gazteak, eta baita zaarrak be, jente alalapozez beterik bizi dn erria, erri zindoa zuen Lekeitio.

—Eta, zer ez yatzu atsegin?

—Oh...! Ez dakit.

—Zerbait, orraitio?

—Gabaz, goizetik afaldu eta ikasi eta lo egitea guztetan yat. Or. Parke inguruko altabozak, ordu orreitan zarata lar egiten dabela edo... inoiz goizaldeko ordu biak arte eta...

—Zeintzuk dituzu lanbideak eta ikasteak?

—Aspaldi, Pariseko La Sorbonne-Lettres alderdian nago irakasle. Aintziñeko indio izkuntzea da nik irakasten dodana; zera, Sanskrit.

—Izkuntza mordoaren jabe izango zara, kontixu?

—Indoeuropear izkuntza gelenak ezagutzen ditut.

—Zeintzuk eta zeinbat?

—Golko berbetan erantzunik geratu da.

—Noiz asi zara euskeraz ikasten? Eta nun?

—Aurtien eta emen, Lekeitio. Urte batzuk leenago izan neban alako gorotxua, baiña oraingoan izan da benetako garra ta gogo be-tea.

—Euskereari buruz, zure eretxia agertuko al deustazu, Minard jauna? Zein izkuntzaren antza dau Euskereak?

—Ex, ez dauka besteren antzik;

berezia da, apartekoa. Indoeuropear euskereak, kaukasotar orrekin zerbait usain izan arren, antzik ez dau. Beste zerbait da. Beste sendi edo suster bateko izkuntzak ikasi bearra susmauten dogu izkuntzariok eta ni be, orregaitik asi naiz euskera ikasten, aparteko izkuntzea dalako.

—Orduan, jakingarria ta interes aundikoa dogu euskerea?

—Bai, jauna. Euskerea ezagutze ta jakiteko bearrizana ta preminea filologoak argi ta garbi ikusi dabe arako austriar Hugo Schuehardt argiak audarik baga, agertu eban arrezkeru.

—Zer egin leiteke euskerearen agaldue ez daitean?

—Argi dago ori: eskolak, eskolak eta eskolak, euskera ikasteko ta irakasteko ta jasoteko.

—Eta len esandakoetaz ganera, Lekeitio zergaitik gusetan yatzu?

—Gauza bat esango deusut: Kantabriku itsasalde osoan dan erririk politena dalako, nire eretxiz. Ez dakizu zein zoragarria dan, an, goizetan, gure etxeko balkoitik, udan, eguzkia urtetan ikustea. Ez dakit geiago zergaitik, baiña ementxe erosi dogu etxebizitza Karrazpio ganean, Kurlutxu tontorrean. Eta urtero, Jaungoikoa la-

gun, onaxe etorteko asmoa dogula esatea naikoa dozu.

Eta frantses irakaslearen emazte onak, —au be, irakaslea da— laster arin geitu deust:

—Emen il ba naite, ementxe lur emotea nai neuke.

geroago, euskaldun baseritar bat egon da aoa zabalik, Minard jaunak euskeraz irakurten jardun dauan bitartean.

—Kontxa! Ni euskalduna nok, jaiotzetik; baiña ezin yuat nik orre lan euskeraz irakurri.

Ikasbide ederra, erbesteko gizon jakitunena.

E. ERKIAGA

# EUSKAL TXAPELA

A. ONAINDIA

Mendi gainera igonik, gitxien us-teko lekuan, aurkitzen doguz lorapitirik ederrenak. Era berean jazo oi da mundu zabaleko guztetan be, ta gure euskal erri txiki onetan bereziki. Gauzarik asko doguz esku artean —gu kontuan jausi barik sarri— ardura ta gora andikoak: mendi zokoan azten diran lora antzeko pitxi politik doguz bai izadian, bai arte-sailean, bai bizi-guztetan. Oneitako bat da euskal txapela, alai ta dantzari gure buru gain.

Txapela! Ba al dau gaur gorarik? Zetako ete dogu bertoko gauza guztiak, asko geintzat, millaka urtez gure aurretikoak arduraz zainduak, lurpera doakiguzan kondaira ordu onetan? Or zegaitik, ain zuzen: guk erdi-albora itxitako gauza askori, kanpotarrak, aintzat artu ta inportantzi andia emoten dautselako. Egunokaz ez ete dozu irakurri ipar-amerikarrak, Almeria'ko itxas-ertzean jausirik egazkin biren istiluan dabiltzala, zelan artu daben euren gudarian buru-jantzitaz gure antxiñako txapela? Onek ez dula inportantzik? Nik baietz uste. Bardin beste milla guztatan be, guk zapuztu ta saiets itxi arren, erbestekoak egoki, on eta edertzet daukiez. Gaurko apaizak, adibidez, lengo eleizkapela ain egokia ezalata, toki askotan, eta batez be Frantzia'n, euskal txapel bazala darabille.

Gaur guk txapelaz estaltzen dogu burua: len orraitio ba-genduzan beste buru-estalki batzuk. Jantzi-kontua euskaldunon artean oso biurri ta adigaitza izan da kondaira aurretik asi ta gaurdaiñoko guztian, baiña beti egikeraz txairo ta kolorez aberats; gure izkelgiak be orrela ei ditugu, gure goioa erabat era ta ertz askodun. Kanpalaik tankera berezian josten ei ebezan antxiña, norbait iltamuan aurkitzen zanean: geisori aurkitzen zana nor zan, gizon, emakume, edo-ta ume, kanpaldofiu ta joeratik ezagutzen ei eben. Gaur be bada olako zerbait, naiz-ta ez orren argi.

Jakitun askok aztertu ta darda gainean erabili izan dabe gure txapela: T. Arantzadi'k, P. Veyrin eta R. Cruzacq'ek, esate baterako, susterrez ikasi ta arakatuko ebezan bere jatorri, egikera, edertasun ta abar. Euskal orroigailu zahar zale genduan Arantzadi'k lan luzea argitaratu eban beñola, 1916'garren urtean, garai artan Donosti'n azaltzen zan «Euskalherria» aldizkarian; estetika alderditik begirata aztertu eban batez be.

Era askoz egiñiko burukoak aitatzen ditu bere lanean. Kapela edo ginbailla, lastozkoa izan daiteke, baita ille-eun edo feldrozkoa be. Lastozkoak atzerri-sunda dau gurean, kanpotik etorriak edo euskaldun erbestean egonak jantzi oi dabelako; uleunezkoak, ostera, euskaldun izan nai dau, baiña euskaldun aberatsa, txapelaz baiño jantziago bere burua ikusten dauana. Olakoaz dabilenak, alan be, irribarrea dakarsku ezpan-ertzer, sarri dakuzgan jitu, txerpolari, oiulari, lapur, erbestetar ta antzekoak gogorazirik. Napar aldean, antxiñako ekanduari jarraituaz, narruzko kapelaz apain-

tzen ziran, egal luze ta ulea kanporuntz ebelarik. Baita emen Bizkaia'n, Arratia'n eta Durango aldean, eta Gipuzkoa'n Bergara baillaran, etxeko jaunak eta, egun aundietan batez be, ertz zabaldun kapelaz estaltzen ziran; atzekaldekik gorantz tolostuta eukezan egalak, aurretik ostera txoto antzera ta goigoi txuntxur amaaturik. Alkateak be lenago, toki askotan, sarri ikusi genduzan txanodun ginbaillaz eta kapusai luze baltzez. Gure andrazkoak be guztiz dotore ibilli oi ziran, solo lanetan batik bat, olako kopalek itxurako kapela zapal edatuakaz.

Euskaldunok, geienez, ule laburra daroagu. Gauza bakana, alan be, errez sortu oi da, bide-ertzetako zura antzera nunbait. Eta gaur ba-dira gure artean izate-zale, beates ta ye-ye itxuran orrazturik ulea daroenak. Orreik ezтира, ziur asko, txapel zale izango. Baiña geienok ule labur, txapela egokiago sartu ta buruan moldetako. Len kanporantz eukan ertza, orain bururantz bota dautsagu, kaska gainean obeto jarri ta erara doitzeko; geroago gure arteko jauntxoak ezarri ei dautsoe naruzko esi loa, geiegi zabaldu ta nasaitu ez dedin antza. Euskaldun odol zurikuok, buru gainean izten dogu konkort ta nasai, garrantzi aundirik emon bage; urduri ta arategtsuak, barriz, itxas zirimoltsua lez, narras, biurri ta triki-troko. Ezta ez dau jaxten buru erdian be, alboraka baiño. Ta txapela zearretara jarte onek ba ei dau, gertaki guztiak lez, zer-esan berezia euskal izaerari begitu ezkeru.

Euskalduna ete dogu jatorriz? Ezta gauza ziurra. Gai au askotan aizutatu izan dan arren, oraindik ez da osozko argirik egin. Baiña, ziu-rren danez, geure soloko landarea dogu. Egia da, beste lurralde batzuetan be, Eskozia'n, Suiza'n, Alemani'n eta abar, olako zerbait euki eben amabosgarren eta amaseigarren gizaldietan. Luter ta Kalbin, esaterako, txapel antzeko txano zapal luzez agertzen yakuz euren argazkietan. Alan be, René Cruzacq'ek bere *Histoire du baret basque* liburuan diñoskunez, Auñamendi aldekoa da jatorriz, ta Landes'etik Auñamendi'ra bitartean eten barik eroan izan da, azkenez Paris'en bertan euskal izena emonik, ta arrezkeru guztian onela deitzen dautsoe alde ta izkuntza danetan: prantzeraz *baret basque*, ingelesez *basque cap*, alemanez *baskische mütze*, italeraz *berretto basco*. Guztiz antxiñatik, izan be, txapelaz jaxten ebezan buruak Zuberoa'n eta Lapurdi'n; eta txapel au, gienetan, baltza edo urdiña izan oi zan, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n baiño zabal luzeago.

Ortiz kanpo, txapel-lantegiak be euskalherria izan ziran ifun baiño ugariago. Amazortzigarren gizaldian ba-ziran txapel-fabrikak Oloron eta Nai'en, gaur Tolosa'n, Azpeiti'n, Balmaseda'n Ezkerai'n eta abar aurkitzen diran lez. Luze ta estu, txiki ta andi, zabal ta biribil, taiu guztitakoak egiten dabez, ulez egoki eundu ta gabiz polito trimindurik. Len-

go urteetan eskuz egin oi ebezan gartzardi antzera, oso ta bete; gaur euntegi, anazka ta makifia bereziak daukiez ortarako. Arlo onetan be, ez dago zertan ukatu, aurrera doa giza-antze ta trebetasuna. Begira, zenbat txapel-tankera gaurko ume ta emakumeen buruetan, txano jagi biribil zapal girgildunak noski, kolore ñabar, bizi, alkargaitzez edertuta.

Mikeleteak Gipuzkoa'n antxiñatik, eta gaurko beste erri-zain askok, txapel gorriak darabillez, urre kolorezko burdiña zati biribil bat erdian dabela. Isabeldar eta karlatarren gudaldirik dator oitara au; orduan, ba, batzuk txapel gorri eta bestetxuz zuzir estaltzen ebezan euren buruak; ortik gero *txapelgorri* ta *txapelzuri*. Gure Zumalakregi buruzagiak urdin aundi bat jantzi oi eban, urrean eundi ta azpaturiko eraskin batekin. Alkar arteko istillu ta burrukaldi aren ostekoak dira Gipuzkoa'ko txapel fabrikarik geienak, Antonio Elosegi'k Tolosa'n ipiñi ebanetik asita; arrezkeru gizamila guztietara zabaldu daukagu buru-jantzi dotore au, naiz gurean naiz erbestean. Dakigunez egokia da, ta gain-gaiñean daron txurten arrozkoak be olango txoirotasun apartekoa ezarten dautso. Zein bertsolari zein eliz gizon, naiz kaletar, naiz baseritar, apain ta eroso jaxten dau txapelak.

Soiña apaintzean baktzak dogu geure berarizko era, baita txapela buruan jartzerakoan be. Oni onela yako atsegin, ari beste era aretan. Alan be, dala onan dala bestera, txapelak eztau eroalea inoiz motz edo itsusi egiten, beti edertu, jasaz jantzi ta txairotu baiño. Itauñ bat, orraitio, Oteiza'ren *Quousque tandem...* liburu irakurri ondoren: Zein alderditan jarten da euskaldunaren txapela? Ezkerrentza ala eskumarantza? Buru erdian ez ef dogu ipinten sekula be; atzekaldean bai, aurrerantza botarik, baiña erdian ez. Ortan be gu izadia lez ei gara, neurri bako, bakan, ezbardin, arau bako, geraka. Konturatu barik degiguna da geienez, ta zelan jaxten dogun itandu ezkeru, ez dakigu bertatik erantzuna emoteko baizen ziur. Zein eskuz ipinten ete dogun be ez dakigu. Baiña ia geien-geienok eskumarantza jarten ei dogu, esku bikaz oratuta. Benetako euskaldunak, alan be, ezkerrentza jantzi bear ei leuke, agurtu bear da-neetan, ezkereragaz txapela artu ta eskumeaz bostekoa emoteko. Euskaldunak beti be azke ta nasai euki bear ei dau eskumea.


Esanak esan, burua jantzi ta apaintzeko guztiz eukerakoa dogu txapela, eta edozeinek ezeren bildur ta lotsa barik erabili leikena; Palomares'ko ipar-amerikar gudariak ez-ezik, mundu zabaleko txiro, aberats, andiki ta eliz-gizon guztiak be bai. Guk euskaldunok, ostera, geurea dalako, egokia dalako, ez dai-gun bertan-bera itxi beste gauza asko lez. Ara: nainun zabaldua da gaur euskal txapela, alan eta guzti be berau dogu mundu guztian euskaldunok dogun ikurburu ta berez-garrik bikaiñenetako bat.

## GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAIÑA, GURINA TA ABAR. - EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERPI AURRERATU GUZTIETAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

## GURELESA

Baserriaren alde  
EUSKAL IRRATSAIOAK



Caja de Ahorros  
Municipal de San Sebastián

Banen baneko aziyak  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru  
aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torrelavega'ko Perira Joan  
etorriak

# Uda gutzietako kezkagarria: LARRASUGEA

Ija urte gutzietan, beroak etortean, honeleko berriak irakurten ditugu egunerokoetan: Horko edo hango mendi batean larrasuge bat tek mutil, haur edo andereren bat fizatu egin duela pozoia sartuaz.

Askotan, hil ere egiten ez dutenetan, ohean uzten dizkigute zati baterako. Nola gertatzen dira guztiok? Ba ote da fizadura hauen aurka ezer onik? Hasteko baiña, larrasugearen bizimodua ta itxura azalduko ditut ta gero fizadurazaz mintzatzuko natzaizue.

Larrasugea (*Vipera berus*) kolorez gorrixka da ta haugatik leku batzuetan Sugegorria ere esaten zaika. Hauxe dugu Euskal Herritik dabilen suge pozoitsu ta kaltegarri bakarra.

Gure mendietan oso ugari da, aunitzek uste duten baiño ugariago. Beraz elegoke gaizki berazaz zerbait jakitea, menditik gabiltzanean holakoren batekin topo egiten badugu erne egoteko.

Metro erdikoa izaten da ta ikusi danik handiena 60 zentimetrokoa besterik ez da izan; beraz metro baiño gehiago duten sugezarrak, bildurgarri izan arren ez dira pozoitsu ez kaltegarri, txistu asko ta ozka edo usigi egiten badute ere.

Larrasugea lodikotea da; bere buztana tiki-ttikia da ta azpian oria. Burua mokasiña bezelakoa du ta betseña, begi-ñiña, katuarena laxe, goitik beherakoa.

Ahotik noizik behin erakusten duen mizto luze beltzika ez du

ezer txarrik egiten, inguruko usaiña susmatzeko ateraten baitu.

Berak ezaguteko duen seiñalerik nabariena bizkar gaiñeko lerro ikurmakur illuna da. Argazkietan hau ederki ikus dezakezue. Buruan V moduko irudia dauka ta azpiko kolorea illuna da, beltzixka.

Fizatzean, kausk egitean, ahoan dituen hortz zorritz bi sartzen ditu haragian. Hortzok zulaturik dagoz ta beren barnetik masail ondoko pozoigurintxatiko edena doa zaurian lotzeko.

Larrasugea, berez ez da haserrekerra, baiña zirikatu-ezkerotximita bezain arin egiten du kosk. Haugatik ez da ibilli behar belar handia dagoan tokitik, belar artean lo dagoen narrasti pozoitsua ez zapalduko, hori ezkerotximita berehalaxe egingo luke koskada ta edena sartu.

Baserritarrak ardura handiz egon behar du belarra batzean, belar legorren azpian sarri holakoren bat egoten baita ta eskuz erabiltean, usigi dezaioelako.

Fizadurak eskuetan ta anketan izaten dira gehien bat; zer egin behar da egin duen zauria sendatzen?

Lehenengo ta behin artetsu egon ta ez emon ihesari. Zenbat eta ariño ibilli odola ere ariño hedatzen baita ta beragaz pozoia.

Sugegorriak fizatu egin duen tokian beraren hagiñen markak dagoz, berton gillet edo laban bategaz gu-

rutz moduko ebagia egin ta berehalaxe odola edoski ahoz ta landara bota. Odol pozoitsu hori irun-tsi daiteke, larrasugearen pozoiak urdail-hesteetan kalterik egiten ez-tuelako. Hala ere hobe da botatzea, ahoan edo barruan zauririk balego hortixek sartuko litzakelako odolera ta orduan berriz bihurtuko litzaiguke pozoia.

Ondoan iturrik balego zoaze bertara zauria uraz ondo garbitu ta odola atera eragin. Guztiok eginda gero zoaze hurrenen dukezen osagilleagana beronek Permanganato potasikoz sendatu zaitzaten ta berak dituen beste antifidikoekin.

Ahal baduzue hil ezazue kosk egin dizuen sugegorria, beste ifiori berdin egin eztezaloz. Horretarako makil bat asko duzue buruan edo bizkarrean gogor joteko.

Larrasugea toki beroetan egoten da, piñudietan batez ere. Iñar-leku ta otegiak ere gogoko zaizkio. Erreka-ondoan ta uretan ordea, ez dago inoiz ere.


Larretan ta belardietan ere bada-bil. Kontuz bada!

Baiña mendian baditugu zenbait lagun pizti gaiztook hiltera lagun zaizkigunak: bata Kirikiñoa<sup>a</sup> trikua, sagarroia, Bizkaian, Gipuzkoan ta Nafarroan duen izenaz. Arantzadun jaun gauzale honi larrasugearen pozoiak miñik ez eta politto hiltzen dizkigu gero lasai jateko. Nork esan aberetxo apal harrek hain adore handikoa zanik?

Arranoek eta beste erpadun hegaztiak ere larrasuge asko garbitzen dizkigute beren txitoentzat batez ere. Errespetatu detzagun bada

mendiko lagun guztiok mesede handiek egiten dituzte-ta.

Kintana'tar Frantzisko Xabier



Arranoak eta beste hegazti handiek sugegorri asko hiltzen dituzte beren janaritzat ta baita beren txitoentzat ere. Argazkian arramo-txitek sugegorri edo larrasuge bat jaten dihardu, ohar zaitzezue narrastiaren bizkarreko lerro ikur-makurra.

## Amar aginduak

1. Egundo ezekzu euskeratzaz erderaz itzik egin.
2. Lau bat urtez ezaizu euskeraren egoeratzaz itzik egin.
3. Ezelzu euskaldunak analfabeteak diranik esan, izan ezteitezan zer egin dozun baño.
4. Ezelzu esan europatar gazte bat zarianik, europatar gaztea zer dan baño.
5. Ezelzu euskaldunok XX'garren gizaldiko bezala agertu bear dogunik, XX'garren gizaldikoa izatea zer dan baño.
6. Beti-beti euskeraz itz egingo dozu.
7. Goizero euskal-kultorea indartzeko juramento bat egingo dozu.
8. Eta goizero euskal-kultorea indartzeko zortziko grupo bat egiteko juramento bat egingo dozu.
9. Urte-barruen euskeraz etaratzten diran liburu guzitik irakurriko dozu.
10. Gauza guzti onelk bete dozuzala uste dozunean, barriro aurreko bederatzia agindu orreitzaz examinau zaitz.

A. ZELAYETA



Kirikiñoak, sagarroiak, garbiketa ederra egiten digu, sugegorri kaltegarri ta pozoitsuak hiltzaz. Larrasuge gaiztoek ez diote berari miñik egiten.